

## HATXA BAINO GOGORRAGOAK

Irene Sarrionandiak eta Oihana Azkorbebeitiak Mañaritik Atxetara proban parte hartuko dute zapatuan. Sarrionandia Atxarte inguruko baserri batean bizi izan zen umetan, eta Azkorbebeitiak ondo baino hobeto ezagutzen ditu ibilbideko parajeak / 2

Irene Sarrionandia eta Oihana Azkorbebeitia.

**Vanessa Goikoetxea sopranoa izango da Durangoko San Fausto jaietako pregoilaria / 4**



**IURRETAKO SAN MIGEL JAIK / 13-20**

 **HEGAN RENT**

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela  
48269 Mallabia (Bizkaia)  
Tel.: 943 171 362

  [administracion@alkideba.net](mailto:administracion@alkideba.net) [www.alkideba.net](http://www.alkideba.net)

**Furgoneta alokairu zerbitzu berria!**





# Mañaritik Atxetara mendi probak interesa piztu du

**MENDI LASTERKETA** Lasterketa luzea, laburra eta mendi martxa kontuan hartuta, ia 400 parte hartzaile batuko ditu, zapatuan. Antolatzaileak "harrituta" eta "pozik" daude harreragaz. Lasterketaren harira, egun osoko jaia antolatu dute plaza inguruan

## IRAILAK 21 - ORDUTEGIA:

- **08:00** Lasterketa luzearen hasiera.
- **09:00** Lasterketa laburragoaren hasiera.
- **09:30** Mendi martxaren irteera (egunean bertan eman daiteke izena).
- **10:00** Umeen gunea: Zuresku egur jolasak.
- **12:30** Bertso saioa: Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo.
- **13:00** Lasterketa laburreko sari banaketa.
- **16:00** Umeen lasterketak.
- **18:00** Trikitilariak: Petite eta lagunak.
- **19:00** Azken korrikalariei ongietorria.
- **19:15** Lasterketa luzeko sari banaketa.



Lasterketa bietako azken igoera Untzillatx mendia da. MAÑARITIK ATXETARA

**Joseba Derteano** MAÑARIA  
Zapatu honetan, Mañaritik Atxetara mendi lasterketaren estreinako aldia izango da. Urte hasieran lasterketa lehenengoz iragarri zutenetik hona, interesa piztu du eta hori izen ematean

islatzen da. Probak 373 parte hartzaile batuko ditu guztira: 121 korrikalari proba luzean, 170 laburrean, eta 80tik gora martxan. "Harrerak harritu egin gaitu. Oso pozik gaude", adierazi du Mikel Larrañagak, proba-

ko antolatzaileetarikoa batek.

Ibilbide luzea, 42 kilometrokoa, ez da txantxetako: 3.800 metroko desnibel positiboa eta makina bat tontor ditu: Artatxagane, Leungane, Astxiki, Urkiolamendi eta Untzillatx, besteak beste. Distantzia horretan, Euskal Herriko probarik gogorrena da, antolatzaileen eta Oihana Azkorbebetia korrikalari abadiñarraren ustez. Horrek hauspo luzeko korrikalarien arreta bereganatu du. Izan ere, 22 kilometro bueltako proba asko dago sasoi honetan —Sorginen Lasterketa, Gorbeia Suzien, Aramotz mendi lasterketa...— baina maratoki distantziakoak, ez hainbeste. Arrakastaren beste arrazoi bat ibilbidea bera da; korrikalariarentzat, "erakargarria" ez ezik "entretengarria" ere badela uste du Larrañagak. "Mañaritik Atxetara probak duen pareko desnibela aurkitzeko, Pirinioetara edo Europako Tontorretara joan behar duzu, eta han igoerak eta jaitsierak oso luzeak dira. Eta hori astuna izan daiteke. Mañaritik Atxetara proban, oster, igoerak eta jaitsierak ez dira hain luzeak, eta entretengarriagoak dira. Pirinioetako desnibela dago, baina beste profil batez", gaineratu du Larrañagak.

Ibilbideko tarte batzuk ez dira ezagunak. Esaterako, ohikoa ez den bide batetik igoko dira Astxikira. Tarte horretan, uda partean, "jende asko" ikusi dute

ibilbidea ezagutzen eta bertan entrenatzen. "Orain hile batzuk handik ez zen inor ikusten, eskalatzailereren bat akaso, eta orain jendea badabilela ikusten dugu", esan du Larrañagak. Iker Etxebarria korrikalaria da handik ibili denetariko bat. "Ibilbideagaz harritua zegoela esan zigun. Oso gogorra zela, baina baita ederra ere", aipatu du Larrañagak.

## Faboritoak

Lehiari erreparatuta, proba luzean hainbat izen nabarmendu daiteke, etxekoetatik hasita. Gizonetan, Erlantz Zaldunbide iurretarrak behin baino gehiagotan erakutsi du distantzia luzeetarako duen gaitasuna; Asser Alonso atxondarra ere txispagaz dabil, Sorginen Lasterketako 10. postuak erakusten duen moduan. Aitor Zunzunegi legorretarra, Iker Etxebarria basauriarra eta Ibai Urrutia gernikarra ere faboritoen artean sartu beharrekoak dira. Emakumeetan, Oihana Azkorbebetia da faborito nagusia, Ainara Arkarazo herrikideagaz batera (3. Sorginen Lasterketan).

**IBILBIDEKO TARTE BATZUK EZ DIRA EZAGUNAK. OHIKOA EZ DEN BIDE BATETIK IGOKO DIRA ASTXIKIRA**

## Probaren harira, egun osoko jaia

Zapatu honetako mendi lasterketa Mañarian hasi eta amaituko da. Une horietan, korrikalariak eurak izango dira ikuskizuneko protagonistak plaza inguruan. Baina interesgunea ez da momentu horietara bakarrik mugatuko, egun osoko jaia antolatu dute eta.

Kontuan hartu behar da mendi maratoko korrikalaririk gehienek sei orduetik gorako lana egingo dutela. Lehenengoak baino ez dira sei orduetik jaitsiko, eta horien eta azken korrikalarien artean hainbat ordu joango dira. Gainera, maratoko sari banaketa iluntzian izango da, 19:15ean, eta ordura arte askotariko ekimenak egongo dira herriko plazan. Goizean, 10:00etan, hiru probak hasi eta gero, umeen gunea zabalduko dute, Zuresku

egur jolasekin. Eguerdian, hiru bertsolari arituko dira bertsoetan: Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo. Arratsaldean, umeen lasterketak eta trikitilariak egongo dira. 19:00etan, mendi maratoko azken lasterkariei ongietorria egitera batuko dira, eta segidan egingo dute sari banaketa.

## Pantaila plazan

Lasterketa jokatzeko den bitartean, herrigunean daudenek hari buruzko informazioa jasoko dute; izan ere, pantaila handi bat ipiniko dute plazan, eta, bertan, ibilbidean zehar boluntarioek grabaturiko bideoak eta argazkiak proiektatuko dituzte. Bideo deiren bat egiteko asmoa ere badute, unean uneko egoeraren berri emateko. Ildo ho-



Lasterketako antolatzaileek boluntarioekin egindako batzarreko irudia. MAÑARITIK ATXETARA

rretatik, boluntarioen laguntza azpimarratu du antolatzaileetarikoa batek, Mikel Larrañagak. "Herriaren eta herritarren erantzuna sekulakoa izan da. Hain herri txikia izanda, 120 bat boluntario ditugu. Aurreikusten ge-

nuena baino askoz ere gehiago da. Herria oso inplikaturik dago eta hori pozgarria da", adierazi du.

Gaur bertan ere badago zegas gozatu. 19:00etan *Panoli kabareta* antzezlanak ikusteko aukera dago.



Irene Sarrionandia eta Oihana Azkorbebeitia, Mañariko plazan.

## "Mañaritik Atxetara probako ibilbidea ederra da, astiro egitekoa eta teknikoa"

**MENDI PROBA** Irene Sarrionandia eta Oihana Azkorbebeitia desiratzen daude Mañaritik Atxetara egiteko. Bientzat kutunak diren tokietatik ibiliko dira. Azkorbebeitia etxe ondoan ibiliko da eta Sarrionandiak Atxarte inguruko baserri batean ditu zuztarrak

### J.D. MAÑARIA

Korrikalari biak entrenamendu saioa eginda heldu dira Mañariko plazan eguerdian ipinitako hitzordura. Oihana Azkorbebeitia Urizar (Abadiño, 1981) Mañaritik Atxetara probako ibilbidean ibili da. Irene Sarrionandia Unzueta (Zornotza, 1948) bizileku duen Deba inguruan. Lagunak dira eta besarkada estu batez agurtu dute elkar. Hasieran, Trail Valle de Tenako (Huesca, Aragoi) proba izan dute berba; biek parte hartu zuten han, iraileko lehenengo asteburuan. Sarrionandiak estuasun handia igaro zuen orduan, Garmo Negro mendian gora hipotermiak jota. **Une gogorra bizi izan zenuen, Irene. Zelan gogoratzen duzu gertaera?** I.S.: Irteeran, megafoniatik esan zuten trumoia zetorrela arratsalderako, baina goizean egun ederra izango genuela goian. Guk goizean igo behar genuen

Garmo Negro mendia. Gorantza nindoala, beherantza zetozen batzuei goian zer aro zegoen galdetu nien. Behelainoa zegoela eta hotz egiten zuela esan zidaten, baina haizerik ezetz. "Haizerik ez badabil... ondo", pentsatu nuen. Gero, euria hasi zuen. Eskularruak jantzi nituen, eta zira ere bai, motxilaren gainetik. Zenbat eta gorago, orduan eta hotz handiagoa sentitzen nuen. Haizea zebilen eta harrioste baten babesean arropa gehiago jantzi gura nuen, baina ez nuen leku egokirik topatu. Kontrolgune batera heltzea zen hurrengo helburua, han lagundu

**I. SARRIONANDIA: "DARDARA ETA ARNASESTUA NITUEN. JAUSI ORDUKO NEU ETZAN NINTZEN"**

egingo zidaten eta. Bizkor-bizkor nindoan, arnasestuka. Kontrolgunea 20 metro eskasera ikusi nuen, baina ezin heldu! Dardara eta arnasestua nituen. Lurrera jausi orduko, etzan egin nintzen. Han zebiltzan mendizale, korrikalari eta antolakuntzakoek lagundu zidaten. Manta termikoa ipini zidaten, eta panazko praka handi batzuk. Galderak egiten zizkidaten etengabe, esna mantentzeko.

### Zelan atera zintuzten handik?

I.S.: Telefonoz batari eta besteari deitzen ikusten nituen. Eguraldi haregaz helikopteroa ezin zela haraino joan esan zuten azkenean. Hori entzunda, apur bat erreakzionatu nuen. Zutunik egoteko kapaz nintzela ikusi nuen, eta baita pausoak emateko ere. Itxura hartzen hasi nintzen apurka. Batek esku batetik eta beste batek bestetik helduta hasi nintzen mugitzen. Gero,

esku batetik bakarrik, eta, ondoren, makila biak hartuta neu bakarrik. Umorea ere berreskuratzen genuen, broma eta guzti. Helikopteroa zain geneukan beherago. Herrian, anbulantzia sartu eta helmuga ingurura eramantzen ninduten. Ez zidaten azterketa medikorik eta halakorik egin, eta horren falta igarri nuen. Baina, tira, ondo nengoen eta hotelera joan nintzen. Ia normal nengoen. Biharamunean Peña Oroel mendia igo nuen familiagaz, Jaca inguruan.

### Oihana, zuri gertatu zaizu antzeko egoerarik inoiz?

Oihana Azkorbebeitia: Bai, baina ez hotzagaitik, bero-kolpe batez baina. Zegama-Aizkorrin izan zen, 2011n. 30 bat gradu zeuden Zegaman, eta helmugatik 200 metro eskasera proba bertan behera utzi behar izan nuen. Txarto ikusi nuen neure burua: ni hemen eta hankak aurrerago. Etzan egin behar izan nuen. Anbulantzia heldu nintzen helmugara. Ireneri baino gehiago kostatu zitzaidan errekupe ratzea, bai fisikoki eta bai psikologikoki. Kontrola horrela galtzea... "Zelan gertatu zait hau?", pentsatu nuen.

### Irene, Garmo Negro gertaturikoren ondoren, mendiagaz duzun hartu-emanaldatzea pentsatu duzu?

I.S.: Ez, ez dit beldurrik utzi. Baina orain argi dut: jantzi arropa ahalik eta lasterren, ez utzi geroko.

### Zapatuan Mañaritik Atxetara lasterketan parte hartuko duzue biok. Gogotsu?

I.S.: Lasterketaren berri izan nuenean, "hau derrigorrez egin behar dut", pentsatu nuen. Izan ere, ama Atxarte baino goratxoago dagoen Intxalde (Intxaurrealde) baserrikoa zen eta ni ere han bizi izan nintzen eskolan hasi arte. Eta ibilbidea bera ere, Astxiki, Larrano, Untzillatx... neurretzat propio egindako ibilbidea zirudien! Joseba nebak eta biok egingo dugu, 22 kilometrokoa. **Ibilbidea gogorra iruditzen zaizu?** I.S.: Bai, gogorra da. Ibilbide

**O. AZKORBEBEITIA: "BEHIN, HELMUGATIK 200 METRORA UTZI NUEN LASTERKETA, BERO-KOLPE BATEGAITIK"**

ederra da, baina teknikoa eta astiro egitekoa. Hasieran, "tira, egingo dut", pentsatu nuen, "ez dira hainbeste kilometro ere". Baina, jakina, 2.000 metroko desnibel positiboa du eta Untzillatxeko jaitsiera txarra da niretzat, oso harritsu. Inguru horretan jende asko dabil eta harria oso janda dago, labana da. Errazago egingo dut igoera. Aurreikusitakoa baino denbora gehiago egitea ez da drama bat izango niretzat. Hori bai, Gatzarrietatik araututako 50 minutuen barruan pasatzea gustatuko litzaidake. Ahalegina egingo dut behintzat! Bestela, beharbada hor izango dut neba, urritx-makila eskuan, "ez duzu itxiko kontrola", bultzaka esanez (barrez).

### 42 kilometroko proba Euskal Herriko gogorra izan daiteke distantzia horretan? Oihana, zuk zer deritzozu?

O.A.: Paraje hori oso ondo eza gutzen dut, baina igoera bi ez nituen ezagutzen. Bata, Astxiki, ohikoa ez den bide batetik igoko dugu. Oso polita iruditzen zait, eta benetan gogorra. Bestea Arrazolatik Zabalandirako igoera da. Andastotik barik beste bide batetik igoko gara. Kasu honetan ere, oso bide polita eta gogor-gogorra. Kontuan hartuta gero Untzillatx igo behar dugula, zazpi orduen bueltan ibiliko naizelakoan nago. Distantzia horretan, Euskal Herriko proba barik gogorra da, bai, dudarik barik.

### Zein probatan parte hartuko duzue Mañarikoaren ondoren?

O.A.: Astebetera Gorbeia Suzien, eta hurrengo Anboto Kilo metro Bertikalean.

I.S.: Nik urtetxoetan egin izan dut Anbotoko bertikala, beti ordubetetik behera. Behin bost segundogaitik, eta orduan erabaki nuen "tira, nahikoa izango da" (barrez).

### Zuek hasi zinetetik hona, asko hazi da emakumeen parte hartzea?

I.S.: 51 urteagaz hasi nintzen mendian. Zegama Aizkorriko bigarren aldia izan zen nire lehenengo proba mendian. Hurrezker, urte batzuk joan dira, eta, bai, emakumeen parte hartzea asko hazi da. Poz handia ematen dit.

I.S.: Nire lehenengo mendi lasterketan hiru emakume baino ez genuen parte hartu. Orduan nobedadea zen. Hasi ginetik gaur egunera alde handia dago.



# Vanessa Goikoetxea, sanfaustoetako pregoilari

Soprano durangarrak izango du bere sorterriko jaietako txapligua udaletxeko balkoitik botatzeko ardura. Txupin txikia San Antonio ikastetxeko ikasleek jaurtiko dute. Jaiak Maite Robles diseinatzaile berriztarraren 'Giro alaiak' kartelak iragarriko ditu

## Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak eta jai batzordeak sanfaustoetako xehetasunak argitzeari ekin diote apurka-apurka. San Fausto egunaren bezperako txapligua Vanessa Goikoetxea soprano durangarrak botako du. Artistak "oso pozik eta harro" jaso du pregoia irakurtzeko eta txapligu nagusia botatzeko ardura. Goikoetxea ezin izan da asteon Durangoko udaletxean egin den agerraldira etorri, momentu honetan Ameriketako Estatu Batuetako Boston hirian dago eta Mozarten opera bat interpretatzen. Baina, aurreratu duenez, urriaren erdialdean txupina botatzen eta herriko jaietz gozatzen egongo da.

Umeen egunean, urtero-urtero Durangoko ikastetxe bat arduratzen da txapligua botatzeaz. Eta, aurten, San Antonio ikastetxeko ikasleek izango dute ohore hori. LHko 5. eta 6. mailako Norak eta Ismenek jakina-



Vanessa Goikoetxea sopranoa. ANBOTO

razi dutenez, "oso pozik" daude eskola ordezkatzeari. Bestalde, ikastetxeko zuzendari Oier Urigoitiak jaietan "telefono mugikorra albo batera uztera" eta jaiak euskaraz gozatzea deitu du. Kartel lehiaketako irabazlea

*Giro alaiak* diseinua da eta Maite Robles berriztarrak egin du. Roblesek 22 urte ditu eta batxilergo artistikoa ikasi du Durangon. Gaur egun goi mailako diseinu grafikoa dabil ikasten.

## Jaien lehenengo lerroan



**Maite Robles, kartel lehiaketako irabazlea.** "Kartelean jaietako eszena bat fikzionatu gura izan dut, Durangoko tradizioak islatuta. Herriari begirako keinu ugari dago, eszena alai batean batuta", azadu du.



**Txupin txikia, San Antonioko ikasleen esku.** Nora eta Ismene "oso pozik" daude eskola ordezkatzeari. Ikastetxeko zuzendari Oier Urigoitiak gaineratu duenez, "polita da jaietan urterik urte umei geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaiela ikustea".

## Etorri berriekin hizkuntzak praktikatzeko boluntario bila

Durangoko Udalak 'Hizkuntza bikoteak' programaren edizio berri bat antolatu du etorri berriei laguntzeko



Programak herritarren inklusioa sustatzea du helburu. DURANGOKO UDALA

## Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak *Hizkuntza bikoteak* programaren edizio berria ipini du martxan, etorri berriei hizkuntzekin trebatzen laguntzeko. Etorri berriei asteaz ordubetez euskaraz edo gaztelaniaz berba egiten erakusteko prest dauden herritarrei zuzenduta dago programa. Asteroko konpromisoagaz gainera, programak bestelako aisialdi edo kultura ekintzak jasotzen ditu, hala nola tailerrak, bisita gidatuak eta irteerak ingurunea ezagutzeko. Boluntario egin gura duenak Durangoko Udalera jo dezake informazio eske. *Hizkuntza bikoteak* programa 2011n ipini zen martxan. Ordutik hona, 1.000 bikote baino gehiago sortu dira. Programak gizarte sareak eratzen eta inklusibitatea lantzen laguntzen du.

## Zaintza ereduak eta hausturak, Andraguneko ikastaro berrietan

Andraguneko ikastaro berrien eskaintza aurkeztu du. Izen emateak irailaren 27ra arte egin daitezke

## Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Andraguneko ikasturte honetako tailerren eskaintza aurkeztu du. Aurtengo plangintzan, aurreko edizioetan arrakastatsua izan diren ikastaroetariko batzuk mantendu dituzte. Autodefentsa feminista, genero-arrakala digitala eta komunikazio tailerra dira horietariko batzuk. Horrez gainera, eskaintzara proposamen berriak batu dituzte parte hartzaileen beharrezko erantzunak eta eskariei erantzuteko asmoz. Honako hauek dira eurretarioko batzuk: zaintza


ereduak, haustura prozesuak, antzerki inprobisazio tailerra eta ekonomia feminista. Jarduera guztietarako aurreinskripzioa irailaren 27ra arte egin ahal izango da, Andraguneko. Jesica Ruiz alkateordeak herriko eta inguruko emakume guztiak gonbidatu ditu Andraguneko eskolaren eta Topaguneko jarduerekin bat egitera: "Orain, inoiz baino gehiago, denon parte hartze aktiboa behar dugu, berdintasunezko gizarte bidezkoago bat eraikitzen jarraitzeko".

# Autoan egindako joan-etorriak erdira jaitsi dira 20 urtean

Oinez eta bizikletan egindako desplazamenduek, ostera, goranzko joera izan dute. Durangoko Udalak egokitzat jo du herriko mugikortasunaren bilakaera, eta aurrerantzean ere bide horretan sakontzeko asmoa duela iragarri du

## Ekaitz Herrera DURANGO

Durango barruan egiten diren batetik besterako joan-etorriek jasangarritasunerako joera erakusten dute. Ondorio hori atera daiteke, behintzat, udalak emandako datuak hartuta. 2003an, herri barruko joan-etorrien %46 autoan egiten zen, %53 oinez, eta %0,7 bizikletan. Orain, hogeitau urte geroago, argazkia desberdina da: autoan egiten diren joan-etorriak %20 dira, oinez egiten direnak %70, eta bizikletan egiten direnak %7,4 (azken datu hauek 2022koak dira). Mireia Elkoroiribe alkateak norabide horretan segitzeko asmoa agertu du, "kutsadura gutxituta, jasangarritasuna areagotuta eta



Durangoko joan-etorrien bilakaera.

bizitzeko leku osasungarriago bat sortuta". Datuak "pozgarriak" direla esan du, eta "kontzientzia hartuta, aldaketa errealak" gauzatu daitezkeela iritzi dio.

Hori guztia dela eta, udalak, 2004tik hona urtero-urtero egin duen eran, bat egin du Europako Mugikortasunaren Asteagaz. Ekimena irailaren 22an amaituko da eta *Espazio Publiko Partekatua* izango du goiburua. Udal ordezkariak egitasmoan zehar antolatuta diren ekintzetan parte hartzeraz deitu dituzte herritarrak: "Europako Mugikortasun Asteak eredu jasangarri eta arduratsu bat lantzeko aukera eskaintzen digu. Gure mugikortasunaz hausnartu dezakegu, eta batetik bestera mugitzeko bestelako modu jasangarriagoak esploratu ditzakegu", adierazi du Sara Oveja zinegotzi jeltzaleak. Mireia Elkoroiribe alkateak "ekintzetan parte hartzea eta hausnartzea" deitu ditu herritarrak. "Denok ekarpena egin ezean, gatz izango da aurrera egitea. Gure egunerokotasunean aldaketak eginda, ekin diezaiokegu bideari", adierazi du.

## Mugikortasuna aldatzeko tailerrak

Zapatuan eta domekan, Durangon hainbat ekintza egingo da mugikortasuna lantzeko.

### Zumalakarregin

- **Zapatuan:** Mountain bike eta skate zirkuitua, bizikletak ondo mantentzeko tailerra umeentzat eta helduentzat. Durangoko bidegorri sarea ezagutzeko irteera.
- **Domekan:** 3x3 saskibaloia txapelketa, Tabirako klubagaz elkarlanean.

### J.M. Barandiaranen

- **Zapatuan:** Bizikletak margotzeko tailerra, eskulanak, talogintza, xakea eta egur jolasak.

## Eirband, paella txapelketa eta Sugarri, Goienkaleko jaietan

Asteburuan jaiak ospatuko dituzte Goienkalean. Ekitaldiak gaur hasiko dira, 20:00etan, txupinazoagaz

## Ekaitz Herrera DURANGO

Goienkaleari ez zaio parranda giroa arrotz egiten. Gautxorria denak astebururo topatuko du han jairako aitzakia. Baina asteburu honetako berezia izango da, kaleak bere jai propioak ospatuko dituelako barikutik domekara. Ekitaldiak iluntze honetan hasiko dituzte, 20:00etan botako duten txapluagaz. Sugarri fanfarreak giroa berotuko du gero, eta Eirband taldeak kontzertua emango du, 21:30ean. Zapatuan ekitaldi gastronomikoak egongo dira. 13:00etan paella txapelketari emango diote hasiera, eta, ordu horretan bertan, Geu Be elkarteak kideek txorizoa banatuko diete jaizaleei. Sugarrik gatza eta piperra ipiniko ditu kalean, 13:30etik 15:30era eta 17:30etik 20:30era. 21:00etatik gauerdia arte, Txusti musika jartzaileak ipiniko



lazio jaietako argazkia.

ditu jaizaleak dantzan. Domekako egitarauan nabarmentzen diren ekitaldietariko batzuk gilda txapelketa (13:00etan), Tabira Musika Bandaren kontzertua (13:00) eta Angelman sindromearen elkartearen aldeko zumba solidarioa dira (17:30).

## Berrizko osasun zentroak mediku bi izango ditu urriaren 1etik aurrera

Osakidetzako ordezkariak Berrizko eta Garaiko alkateekin izandako bileran eman dute albistearen berri

## Jone Guenetxea BERRIZ/GARAI

Durangaldeko osasun zentroetan dagoen mediku faltak mobilizazio ugari eragin du azken asteetan. Berrizi, esate baterako, hiru mediku dagozkie eta bakarra dabil lanean. Berrizko eta Garaiko guneari "lehentasunezko soluzioa" emateko, Osakidetzako zuzendaritzak, Susana Lopez Altuna zuzendari nagusia buru zela, Maite Martinez Asistentzia Sanitarioko zuzendariak, Josune Regi Giza Baliabideetako zuzendariak eta Xabier Ibarzabal Ekonomia eta Finantzako zuzendariak bilera bat egin zuten eguaztenean Orlan Isoird (Berriz) eta Erramun Osa (Garai) alkateekin. Bileran Osakidetzak iragarri zuenez, urriaren 1ean beste mediku bat hasiko da lanean Berrizko osasun zentroan. Beraz, osasun zentro

horri dagozkion Familiako eta Komunitateko Medikuntzako 3 plazetatik 2 beteta egongo dira. Gainera, Osakidetzak aurreratatu zuen Berrizko kontsultategiari dagokion hirugarren plaza BAME berriak kontrataztea barne hartzen duen iraileko Familiako eta Komunitateko Medikuntzaren eskaintzan sartuta dagoela. "Osakidetzak plaza hori betetzen ahaleginduko da, 4.500 biztanle inguru artatzen duen zentro horretako medikuen plaza guztiak betetzeko", azaldu dute batzarrean.

## Garaiko osasun zerbitzua

Garaiko osasun zerbitzua berreskuratzeko udalak egindako eskaeraren aurrean, bizilagunen "osasun-laguntza hobetzeko lanean jarraitzeko konpromisoa" agertu zuen Osakidetzak batzar horretan.

## Garaiko nagusien txangoa Oñatiko bazterrak ezagutzeko

## Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko nagusien irteera egingo dute zapatuan, irailak 21, Oñatiko hainbat bazter ezagutzeko. Gipuzkoako udalerrian esanguratsuak diren hiru leku bisitatuko dituzte: XVI. mendeko unibertsitatea, Arantzazuko santutegia eta Arrikruzteko kobazuloak.

09:00etan ekingo diote txangoari; ordu horretan irtengo da autobusa, herriko plazatik. Gero, 10:30ean, irteerako lehenengo geldialdia egingo dute. Arrikruzteko kobazuloak bisitatzea izango da eguneko lehenengo zeregina. Handik Arantzazuko santutegira joango dira. Bisita gidatua izango dute zain, 12:30ean. 14:00etan indarrak hartuko dituzte, bazkaria eginda. Nagusien elkarteak bazkide direnek 35 euro ordainduko dute, eta ez direnek, 40. Arratsaldean, Oñatiko kaleetan barneratuko dira. Han, XVI. mendeko unibertsitatea bisitatuko dute, besteak beste.



# Matrailuko kide biren epaiketa salatu dute

Dozenaka lagun Durangoko Epaitegiaren aurrean batu ziren, martitzenean, Zornotzako Matrailu gaztetxeko kide biren aurkako epaiketa salatzen; "oztopoak oztopo", urriaren 5ean hirugarren urteurren ekitaldia ospatuko dutela aurreratu dute

**A. M. ZORNOTZA**

Joan den martitzenean, Zornotzako Matrailu gaztetxeko kide bi epaitu zituzten Durangoko epaitegian. Gazte zornotzar biek uztailen jaso zuten epaitegira joateko deia. Gaztetxeko eraikina okupatzea egotzita, 321.000 eurorainoko zigorra eskatzen diete, gaztetxeko kideen esanetan. "Epaiketa saihesteko asmoagaz, Asanbladakook beti prest agertu gara eraikinaren lehengo jabeagaz eta Zornotzako Udaleko gobernu taldeagaz negoziatu eta ados ipintzeko", azaldu zuten gaztetxeko kideek. "Kontrara, ez dute euren erantzukizuna hartu. Gauzak horrela, argi utzi dute alderdi guztiarentzat onuragarria izango den konponbide bat bilatzeko borondate falta", gaineratu zuten. Horrela, gaztetxearen etorkizuna zuzenean lotu dute epaiagaz: "Absoluzio ezak desalojo data helduko zaigula esan gura du. Errepresioaren aurrean argi



Martitzeneko elkarretaratzea Durangoko epaitegiaren aurrean.

geratzen da gazteok independenteki antolatzen ditugun proiektu hauen izaera askatzailea, eta horregaitik berresten dugu borroka honetan jarraituko dugula. Orainxe da unea indarra batzeko, erasoaldien aurrean gure espazioak defendatzeko".

Bestalde, gazteek iragarri dute urriaren 5ean Matrailu gaztetxearen hirugarren urteurren ospatuko dutela, "oztopoak oztopo". Besteak beste, Yakovlev 42, Kaparrak eta DJ Leia taldeen emanaldiak egongo dira zapatu horretako egitarauaren barruan.



Jauregizaharreko plaza.

## Jauregizaharreko plaza berreraikitzen hasi dira

Zornotzako Udalak 1.300.000 euro erabiliko ditu Jauregizaharreko plaza berrurbanizatzeko

**A. M. ZORNOTZA**

Zornotzako Udala Jauregizaharreko plaza guztiz berrantolatzen hasi da oraintsu. Plaza berrurbanizatzeko gainera, auzorako sarbidearen segurtasuna hobetuko du, bertan dagoen espaloia handituta. Guztira, udalak 1.300.000 euro erabiliko ditu lan horiek egiteko, eta lanek sei hilabete irautea aurreikusten dute.

Hirigintza-estandarrak betetzen ez dituela iritzita, Zornotzako Udalak Jauregizaharreko plaza eraberritzea erabaki zuen, herritarren beharrezane "behar den moduan" erantzuteko. "Uda-

lak modu integralean berrituko du plaza, bertan dauden azpiegiturak eguneratzeaz gainera familia eta herritarren beharrezanetara egokitutako eremu moderno, atsegin, irisgarri eta segurua sortzeko", esan dute udal ordezkariak. Besteak beste, atsedean guneak, jolastokia, hiri-altzari berriak eta landaredi berria ipiniko dituzte.

Bestalde, udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren behin-behineko proiektua aurkeztu die zornotzarrei ekitaldi batean, herritarren parte hartzea sustatu guran.

## Elorriorako eguneko zentroaren aldeko aldarria, Aldundian

Elorrioko eguneko zentroaren aldeko plataformako hainbat kide Bizkaiko Batzar Nagusietan egon dira



Plataformako kideak, Batzar Nagusietan.

**A. M. ELORRIO**

Elorrioko eguneko zentroaren aldeko plataformako hainbat kidek Bizkaiko Batzar Nagusietara eraman dute zentroa egitearen aldeko aldarria. Zentroaren "premia" azaldu dute, hango ordezkari politikoen aurrean. "Elorrioko 2. eta 3. mailako mendekotasuna duten 126 herritar ditugu; horietariko %88k erabiliko luke zerbitzua Elorrioko egongo balitz. Horrez gainera, 65 urtetik gorako 1.700 herritar bizi dira herrian", adierazi dute. Gaineratu dute Bizkaian 7.000 biztanle baino gehiagoko herri bi baino ez daudela eguneko zentrorik barik, eta Elorrioko dela euren arteko bat. Eskararak elorriarren babes zabala duela erakutsi diete juntakideei, eta urte hasieran baturiko 2.761 sinadurak aurkeztu dizkiete.

## Zapatuan Bizi Berriz jaia ospatuko dute, hirugarren urtez

Irailaren 21ean, zapatua, Bizi Berriz Jaia egingo dute ikasturte berriari "ongi etorria emateko helburuagaz"

**A. M. BERRIZ**

Zapatuan, irailak 21, Bizi Berriz Jaia ospatuko dute. "Uda agurtzeko eta ikasturte berriari ongi etorria emateko helburuagaz antolatzen dugun ekitaldi hau tradizio bihurtu da", azaldu dute Berrizko Merkataritza Elkartearen kideek ohar baten bitartez. Berrizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntzagaz, hirugarren edizioa antolatu du BMEK. Iazko programazioaren "antzekoa" prestatu dute aurtengo

ere. Arratsaldean ekingo diote jaiari, 18:00etan, izozki bana-ketagaz. 19:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoen Txondatxondai dibertsio eta jai emanaldia egingo dute. Eguraldiak laguntzen badu, jaia Olakueta plazan egingo dute (euria eginez gero frontoian izango da), eta aurreko edizioa bietako giroa bizi gura dute. "Jai honen helburua urteroko hitzordua izatea da, herriko establezimendu eta biztanleentzat ospakizun egun bat izan dadin", nabarmentu dute.



# Kulturaren bideak

Ondarearen  
Europako  
jardunaldiak

## BIDE, SARE ETA LOTUREN ONDAREA

2024-10-06	<b>Berriz</b>	→	Arkitekturaren hari-muturrak
2024-10-12	<b>Abadiño eta Garai</b>	→	Merioaren ibilbidea
2024-10-19	<b>Mallabi</b>	→	Andabidea zordanbidea
2024-10-19	<b>Otxandio</b>	→	Bidea, muga eta uria
2024-10-20	<b>Mañaria</b>	→	Harrobiak, bidea eta bentak
2024-10-26	<b>Iurreta</b>	→	Goiuria oinez
2024-10-27	<b>Zaldibar</b>	→	Eitzaga, Zaldibarko ekialde urruna

Informazioa: [www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)

Izen ematea: [www.ondareabizkaia.eus](http://www.ondareabizkaia.eus)

Antolatzailea:



## DURANGALDEA 2024 URRIA

Laguntzaileak:





## Atxondoko Udalak uralita kutsakorrek erretiratu ditu

Arrazola errekaen ondoan botata zegoen fibrozementuzko uralita multzoa erretiratu du udalak. Ildo horretatik, erantzukizunez jokatzeko eskatu die herritarrei, eta praktika txarren aurkako jarrera "irmoa" adierazi du: "Ez da jokabide onargarria"

**Joseba Derteano** ATXONDO

Herritar batek emandako abisuari kasu eginda, Atxondoko Udalak fibrozementuzko uralita multzo bat aurkitu zuen abuztuan Arrazola erreka inguruan, udalak ohar batean jakinarazi duenez. Ondoren, material kutsakorretan espezializaturiko enpresa bat kontratatu zuen, uralita multzoa erretiratzeko eta behar zen moduko trataera emateko.

Mota horretako fibrozementuzko uralitak osasunerako "oso kaltegarriak diren elementuak ditu, amiantoa kasu", ohartarazi dute udaletik. "Ingurumenerako ere oso kutsakorrek dira, batez ere elementu horiek erreka uragaz nahastu daitezkeelako", gaineratu dute.

**Erantzukizunerako deia**

Ildo horretatik, Atxondoko udal arduradunek "erantzukizunez jokatzera" deitu dituzte herritarrek. "Horrelako material



Erreka ondotik atera dituzten uralita zatiak.

kutsakorra ezin da edonon bota. Herritar bakoitza arduratu behar da horretaz, ez udala. Espezializaturiko enpresa batek kudeatu behar izan du", ohartarazi dute oharrean. Bestetik, udaletik praktika txarren kon-

tra egiteko "borondate irmoa" erakutsi dute. "Ez dira jokabide onargarriak. Herritarren ongizateari eragiten dioten praktikak salatzen eta haien kontra egiten jarraituko dugu", adierazi dute udal arduradunek.



30 urtetik gorako autoek osatuko dute erakustaldia. ARTXIBOKO IRUDIA

## Zapatuan auto klasikoek erakustaldia egingo dute Apatan

Elorrioren irten eta buelta bat emango dute Arrazolatik eta Axpetik. Apatan geraldia egingo dute, 11:30 inguruan

**J.D. ATXONDO**

Zapatu honetan, auto klasikoek topaketa eta ibilaldia egingo dituzte Elorriotik eta Atxondotik. Hamarkada batean baino gehiagoan galduta egon den ekimena da eta auto klasikoek zale batzuek berreskuratu dute.

Auto klasikoak Elorrioko Nizeto Urkizu kalean batuko dira. 30 urtetik gorako autoak izango dira. Rallyetan aritzen diren auto batzuek ere parte hartuko dute. Azken horiek Buzkantz kalean batuko dira. 11:00 inguruan ekingo diote ibilbideari. Axpetik eta Arrazolatik buelta

bat emango dute. Ondoren, Apatan geraldia egingo dute, eskolako futbito zelaian. Aukera ederra izango da autoak han ikusteko, 11:30 inguruan. Bien bitartean, parte hartzaileek jan-edana izango dute Penalti tabernan.

Erakustaldia egiten duten lehenengo aldia denez, antolatzaleek ez dakite seguru zenbat auto klasiko batuko diren, baina 60 bat batzea itxaroten dute. Euskal Herritik ez ezik, Aranda Dueroko (Burgos) eta beste toki batzuetako kotxeak etortzea aurreikusten dute.

## Hontza Museoak Frantziako eta AEBetako bisitariak izan ditu

Munduko hainbat txokotatik oporretan etorritako turistek Mañariko natur zientzien museoa bisitatu dute

**J.D. MAÑARIA**

Mañariko Hontza Museoak ez du oporrik hartu abuztuan, eta, Euskal Herriko bisitariak ez ezik, munduko txoko askotatik joandakoak hartu ditu. Esaterako, Frantziako Bordele hiriko eta Ameriketako Esatu Batuetako Montana estatuko turistak, oporraldia natur zientzien museoa bisitatzeko aprobetxatu dutenak. Espainiar Estatuko bisitariak ere joan dira, hala nola Mallorca, Vigo, Madril, Albacete eta Gijon hirietakoak. "Asko familiak izan dira, euren

seme-alabekin etorri direnak. Umeek natur zientzien museoa bisitatzeko pozgarria da beti", esan du Enrike Huerta museo arduradunak.

Orain ikasturte berriari ekin diote. Urtero legez, hainbat bisita gidatu izango dute. Adibidez, urrian, Euskal Herriko Unibertsitateko Zoologia ikasketak egiten dabilen ikasleen lau talde hartuko dituzte museoan. Hauek, museo solairu bietan banaturiko erakusketa iraunkorreko elementuekin batera, aldi baterako *Eskeletoak, gare-*



'Eskeletoak, garezurak eta masailezurak' aldi baterako erkausketako irudia.

zurak eta masailezurak erakusketa ere ikusi ahal izango dute. Museo arxibo aberatsean arakatu, eta askotariko animalien (hegaztiak, ugaztunak, arrainak...) 66 alegaz osaturiko erakusketa da. Garezurrik han-

dienen artean, hartz, gorila, dortoka eta basurdearenak daude, besteak beste. Eskeletoen artean, tximino, uso, itsas zaldi, musker edo Hego Amerikako apoarenak daude, beste batzuen artean.

## Yoga, gimnasia eta luzaketa ikastaroak, aukeran, Izurtzan

**Joseba Derteano** IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat ikastaro antolatu du. Hauek dira aukeran dauden ikastaroak: gimnasia, luzaketak eta gimnasia posturala, eta yoga. Jarduerak urritik aurrera hasiko dira. Izen ematea hasita dago eta udaletxean egin daiteke. Gimnasia klaseak martitzenetan eta eguaztenetan izango dira: martitzenetan 19:00etatik 20:00etara, eta eguaztenetan 18:00etatik 19:00etara. Yoga klaseak eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 20:30era. Azkenik, luzaketa eta gimnasia posturaleko ikastaroko klaseak 15 egunerik behin egingo dituzte, eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara.



# OSTALARITZA GIDA

DURANGO

## BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9  
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatutako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango



DURANGO

## IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B  
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

## GAUARGI



Dantzari, 4 behea  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

## XIBERU



Zeilia Gallartzagoitia, 9  
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna  
 @xiberutaberna



DURANGO

## OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52  
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)  
-Eguneko menua 19,90€  
-Dastatzeko menua 45 €  
-Karta  
Gauean asteazkenetik larubatera (20:00-22:30)  
-Mokadu karta  
\*\*TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi  
 @hotel\_olajauregi\_jatetxea





anboto  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz: Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman  
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Senegaleko kultura ezagutzeko gonbita Iurretan

And Bolo elkarteak berbal dia eta dantza erakustaldia antolatu ditu, besteak beste

**A.B. IURRETA**

Senegaleko kultura ezagutzeko aukera egongo da zapatuan, Iurretan. Izan ere, bertako senegaldarren integrazioarako And Bolo elkarteak antolatuta, ezkontzaren esparruan berbaldi bat emango dute Askondon, Senegaleko kulturaren nondik norakoak azaltzeko. Solasaldia 16:30ean hasiko da eta senar-emazteen eta horien jatorri familien loturak ezartzen dituzten askotariko etapa sozioerlijiozkoak azalduko dituzte bertan.

Berbaldia amaituta, 17:30ean, Senegaleko dantza tradizionalen erakustaldia egingo dute. Eta, ondoren, Iurretako dantzarien txanda izango da. Iurretako Axura komunitateak prestatu-riko tea dastatuko dute 18:00etan, eta, 18:30ean, Senegaleko produktu tipikoak probatzeko aukera egongo da, DJ Gabiren musika afrikarrak girotuta.

## Sanmigeletan taxia ipiniko dute auzoetatik, doan

**A.B. IURRETA**

Iurretako Kofradien Batzordeak taxi zerbitzua ipiniko du, doan, herriko San Migel jaietan auzoetatik herrigunera joateko eta herrigunetik auzoetara bueltatzeko. Irailaren 28an, 14:00etatik 03:00etara eskainiko dute zerbitzua, Kofradien Batzordetik azaldu dutenez. Gogoratu dute udalak kudeatutako Taxi Auzunea egongo dela eguerdira bitartean. Irailaren 29an, 10:30etik 22:00etara eskainiko da zerbitzua. Honako telefono zenbakira deitu daiteke: 626 225 726.



Zorione Fundazuri, Garazi Calle eta Amaia Legorburu.

## Iurretako Berdintasunerako II. Plana osatu dute, 51 ekintzagaz

2027ra bitartean garatuko den plana diseinatzeko, herriko askotariko elkarte eta eragileekin elkartu dira

**A.Basauri IURRETA**

Iurretako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana aurkeztu dute. "Herritarren artean, tratatu onetan onarrituriko hartu-eman errespetuzkoak lantzea" du helburu osaturiko plangintzak, Herritartasun Batzordeko presidente Zorione Fundazurik azaldu duenez. "Berdintasunean oinarrituriko Iurreta lortzeko", gaineratu du. Udaleko jardueran eta gizartean eragin guran, lan esparru zehaztu dituzte. Eta herritarrek parte hartzea ahalbidetuko duten 51 ekintza "egin-garri" zehaztu dituzte, Amaia

Legorburu Gizarte Ongizateko teknikariak eta Murgibe aholkularitza taldeko Garazi Calle prentsarako egindako aurkezpenean esan dutenez.

"Dauden beharrianak antzemateko, herritarren gogo eta nahiak ezagutzeko, eta horiei erantzun bat emateko, prozesu parte hartzaile bat garatu da", azaldu du Callek. Eta, ondorioztatutako dutenez, askotariko emakumeen kolektiboekin lanean jarraitu behar da, eta udaleko jardunean "berdintasuna era transbertsalean sartzeko" lanean sakondu.

## Gaztetxoentzako kirol eskaintza indartu dute aurten Otxandion

Funtzionala eta zumba ikastaroa emango dituzte 14tik 16 urtera artekoentzat; irailaren 25era eman daiteke izena

**A.B. OTXANIO**

Mainondo Kirol Elkarteak prest du kirol ikastaroen eskaintza ikasturte berrirako. Aurten, nobedade modura, zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa emango dute. Era berean, gazteentzako eskaintza indartuko dute, eta 14tik 16 urtera arteko nerabeentzat Funtzionala —irakasle batek zuzenduriko kirol jarduera— eta zumba ikastaroak emango dituzte.

Funtzionala, yoga, pilates, adinekoen soinketa, txirrinbiki, step eta zumba. Orain arteko

eskaintza mantendu dute aurten. Zenbait ikastaro goizetan ere izango dira. "Kirol jarduerak osasuntsu egoteko eskaintzea da helburua, belaunaldi desberdinak batu eta hartu-eman berriak sortzeko", esan du Nekane Ortiz de Zaratek. Irailaren 25era arte eman daiteke izena.

**ORAIN ARTEKO  
ESKAITZA ZABALARI  
EUTSI DIOTE  
AURTEN ERE**



## 'Motor show' eguna antolatu dute, biharko, Abadiñon

Zapatuan, irailak 21, motorrez gozatzeko aukera paregabea egongo da Traña-Matienan

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Zapatuan 'Motor show' erakusketa egongo da Traña-Matienan. Supermoto 56 taldeak antolatu du ekimena, Abadiñoko Udalaren laguntzagaz, eta egun osoan zehar mota askotako erakustaldiak izango dira Arzubiako aparkalekuan eta Inyectametaletako zuzengunean.

10:00etan emango diote hasiera egunari. Gunean zehar hainbat karpa ipiniko dute, eta pilotuek boxetan bizi dutena ezagutzeko aukera izango dute hara doazenean. Antolatzaileek bertan jateko au-

kerak eskainiko dute, 14:00etan, eta ekitaldiak jarraitu egingo du arratsaldean. 15:30ean, gidariek euren abilezia eta trebetasuna erakutsiko dituzte. 16:30ean eta 19:30ean, Narcís Roca pilotuak erakustaldi bana egingo du, eta 18:00etan Efrén Vázquez Academy-ko pilotuaren txanda izango da. Slippery Crew taldeko dantzarien saioagaz emango diote amaiera egunari.

Antolatzaileek bertaratzeko deia egin diete herritarrei, "motor mundua ezagutzeko aukera paregabea" izango baita.



Aurreko edizio bateko argazkia.

## Ikasturte hasierako jaia, Mallabia kirol taldearen eskutik

**M.Z MALLABIA**

Kirol Taldeak ikasturte hasierako festa antolatu du gaur arratsalderako. Mallabiko Udalaren laguntzagaz antolatu dute egitaraua eta herritarrei dei egin diete bertaratu eta jaiagaz bat egiteko.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 16:00etan txokolatada egingo dute Mallabiko eskolan. Horren ondoren, umeentzat egur jolasak eta 12 urtetik gorakoentzat igel txapelketa egingo dira.

18:30ean, Mallabiko eskolatik herriko frontoira lekualdatu dute jaia. Musika ikuskizuna egongo da bertaratzaren diren denentzat.

## Gazteentzat egitarau zabala antolatu dute Abadiñon

Ajuriaren berbetan, "gaztetxoek egunerokoan egin ezin dituzten ekintzak eta irteerak izango dira"



Eider Ajuria, Gazteria zinegotiza.

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Irailaren 21etik abenduaren 21era, hamar ekintza egongo dira adin desberdinetako gazteei zuzenduta: bizikleta txangoa Zornotzara, Gau Beltzaren prestaketa, eskalada ikastaroa, arbola landatzea Muntsaraten, tortilla txapelketa, mahai-tenis jardunaldia eta txalaparta ikastaroa, besteak beste.

Ekintza hauek amaiturikoan, musikagaz gozatzeko tartea ere izango da. Abenduaren 21ean, DJ saio bat izango da Zelaietako probalekuan, San Tomas egunagaz batera.

"Eskerrak eman gura dizkiet jarduerak antolatzen lagundu digutenei: Ganbarru taldeari, mahai-teniseko taldeari eta Katalamixon elkarteari, baita boluntario lan egiten duten deniei ere", nabarmendu du Ajuriak.

## Mobilizazioa Zaldibarren, mediku bi behar direla eskatzeko

Gaur izango da protesta, irailak 20. Herritarrek udaletxeko plazan batuko dira, 19:00etan

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

Zaldibarko herritarrek beste mobilizazio bat egingo dute arratsalde honetan, udalerriko osasun zentroan mediku bi behar dituztela eskatzeko. Osasun zentroan mediku bat egongo da irailaren 30etik aurrera, baina, azken asteotan mobilizazioak antolatzen ibili diren eragileen iritziz, mediku bakarra "ez da nahikoa". Hori dela eta, gaur, 19:00etan, kalera irtengo dira berriro ere, udaletxeko plazara, bigarren medikua eskatzeko. "Joan zen barikuko mobiliza-

zioaren eta udalaren eskarien aurrean, Osakidetzak mediku bat ipiniko du irailaren 30etik aurrera. Mobilizatzen garenean baino ez digute entzuten", adierazi dute protesta ekitaldiko antolatzaileek. Herritar guztiak deitu dituzte mobilizaziora batera.

Zaldibarko Udalak antzeko adierazpenak egin zituen joan zen astean. Osakidetzari arazoa konpontzeko egindako lana eskertu zioten arren, herrian mediku bi behar dituztela gogoratu zuten.



• Pilo Pilo, eramateko janaria  
• Arripuko tortilla aukera ezberdinak  
• Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera  
• Baserriko ogia (Pasaia, Otxandiko baserri egia)

• 91-623. 46213 Iurtas  
• 91-623. 46213 Otxandiko

# akuarela tailerra

**HAURRENTZAKO KLASEAK:**  
Astelehenak edo ostegunak  
17:00etatik 19:00etara

**HELDUENTZAKO KLASEAK:**  
Asteazkenak edo ostiralak  
17:00etatik 20:00etara

Izen ematea eta info +:  
639 052 193  
**TAILER-LEKU**  
Zubizarte kalea 13  
Traña-Matiena

Irakaslea:  
Gerard Culléll Parareda  
parareda



## 'Ongi Etorri', Durangaldeko dendarien kanpaina berria

Abadiñoako, Berrizko, Durangoko, Elorrioko eta Iurretako merkatariek hasi dute 'Ongi Etorri' kanpaina

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Durangaldeko merkatariek kanpaina berri bat hasi dute eskualdeko establezimenduetan tokiko kontsumoa sustatzeko. Urrutira joan barik edo produktuak urrutitik ekartzen ibili barik, Du-

rangaldeko udalerrietan denerik erosi daitekeela erakutsi gura dute. Hori dela eta, establezimenduetako sarreretan Ongi Etorri dioten moketak ipini dituzte. "Pertsona guztiak gonbidatu gura ditugu gure esta-

blezimenduetan sartzera. Ongietorriak direla eta konpromisorik barik sartu, begiratu eta ikutu dezaketela esan gura diegu", azaldu dute ohar batean.

Dendariak elkarlanean hasitako kanpainaren lehenengo fasea da hau. Baina, aurrerago, bigarren fase bat hasiko dute, urriaren 1ean. Bertan, kanpainara baturiko bost udalerrietako dendetan 2.500 euro irabazi ahal izateko aukera eskainiko dute. Diru kopuru hori pertsona bakar batek irabaziko du.



Kanpaina aurkezpeneko argazkia.

## DURANGALDEA ASTEON

### "Irisgarritasun falta" udalaren hainbat eraikinetan

**DURANGO** Herriaren Eskubideak jakinarazi duenez, Durangoko udal zerbitzu bik –Musika Eskolak eta Udal Euskaltegiak– "irisgarritasun ziurtagiria galdu" dute. Talde independentearen esanetan, zerbitzu biek herritar guztiei begirako mugikortasun baldintzak betetzen zituzten orain arte, "gobernu taldeak beste eraikin batzuetara eramane dituen arte".



ZALDIBARKO BERBALAGUNA

### Euskara praktikatzeko kanpaina, zabalik

**DURANGALDEA** Durangaldeko AEK-k motorrak prest ditu aurten ere Elorrioren, Berrizko, Iurretako, Abadiñoako eta Durangoko Berbalagun taldeak aktibatzen. Euskaltzaleen Topaguneak ere dena du puntuan, aurten ere Zaldibarko taldeak dinamizatzen. Berba egitea da kontua, ondo dakienak trebatu gura duenari laguntzea, eta trebatu gura duenak ondo dakienari euskaraz aritzeko gune bat gehiago eskaintzea.

### Sexu esplotazioaren kontrako elkarretaratzea

**DURANGO** Irailaren 22a, domeka, Sexu Esplotazioaren eta Emakumeen, Neskatoen eta Mutikoen Trafikoaren kontrako Nazioarteko Eguna da. Andereak elkarrekin elkarretaratzea egingo du Andra Marian, 13:00etan. Ekimen honek, Andereak elkarrekin hasiera emango dio hile bakoitzeko azken egunean egiten duen elkarretaratze sortari.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarrekin edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## POLITIKAN



### Psikobonuak

Iragan urrun baten oroitzen lausoa dirudien arren, 4 urte pasatxo baino ez dira igaro COVID-19 izeneko birus txiki batek hainbat hilabetez konfinatu gintuenetik. Pandemia horren eta murrizketa sozialen ondorioak ez ziren zain egon, eta gaur egun ere irauten dute. Psikologikoki, gazteena izan zen gehien sufritu zuen sektoreetako bat. Antzietate- eta depresio-kasuak ugartu egin ziren nerabezaroan eta gaztaroan. 2024ko urtarrilean, Euskadiko lau nerabetik batek, 14 eta 18 urte bitartekoak, antsiolitikoak hartu zituen.

Psikobonuak ekimen aitzindari dira, Herriaren Eskubidea/Independentesek sustatua 2023an, Durangoko nerabe eta gazte guztiek osasun mentalerako sarbidea izan dezaten. Osasun mentaleko arazoak beste edozein osasun-arazo bezala normalizatzeko modu bat ez ezik, Osakidetza aldetik beharrezko arreta jasotzen ez dutenentzako laguntza ere bada. Denborak arrazoia emateaz gain, bonu guztiak agortu dira, eta Osakidetza osasun mentaleko arazoak (gure garaiko beste pandemia handia) tratatzeko beharrezko baliabideak jarri behar dituela erakutsi du.

### PSIKOLOGIKOKI, GAZTEENA IZAN ZEN GEHIEN SUFRITU ZUEN SEKTOREETAKO BAT

# anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

**Bixente Kapanaga, 9**  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrindia.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# IURRETAKO SAN MIGELAK 2024



Iurretako Udalak  
jai zoriontsuak  
opa deutsuez!



# JAI EGITARAUA

## IRAILAK 20

**19:00 Antzerkia: Rosa Martinez** omenaldia. "Fue en Abril" ikuskizuna. Ibarretxe kultur etxean. Sarrera 5€.

**17:00 Argazki erakusketa.** Etxegoren V. urteurrena.

**18:00 Etxegoren inguruan ginkana.** Sariak egongo dira.

## IRAILAK 21

**Ahaztu lurreta. 90km. Irteera Askondotik.**

**07:45** Erritmo suabekoak.  
**08:30** Bizkorragoak.

**13:00 / 13:15 Luntxa.** Pertsona nagusien tabernan.

**11:00 Emakume Sortzaileen Azoka.** Plazan.

## IRAILAK 22

**08:30 Iurretako XIII. Mendi Martxa.**

Ibilbide bi: Luzea 24,5km + 1600m / Laburra 14,2km + 620m Iurretako plazatik.

\*Izen emateak: Aurrez: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com), irailaren 19a azken eguna (12) Egunean bertan: 07:30etik aurrera (15) 14 urtetik beherakoek egunean bertan eman beharko dute izena (5) Oharra: Kamiseta opari modura eskuratzeko, irailaren 11 baino lehenago eman beharko da izena. Informazio gehiago: [www.zaldai.eus](http://www.zaldai.eus)

**10:30 40 urte pedalei eragiten.** Argazki erakusketa eta bizikleta martxa retroa herrian zehar.

**13:30 Luntxa.**

**12:30 Herri kirolak.** Frontoian.

## IRAILAK 25

**19:00 XXXVIII Cafes Baque eskuz banakako pilota txapelketako final-laurdenak**

## IRAILAK 26

**18:00 Bingo Tonbola eta txokolatada.** Askondon.

## IRAILAK 27

**14:00 Jubilatuen bazkaria.** Askondon.  
**Jarraian, Urbesalgo soinu-joleagaz erromeria.**

**17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots Urteak bete, abenturak bizi!** ikuskizuna. Plazan.

**18:00 Jaietako kamisetak sortu eta txokolatada.** Etxegon.

**18:00 Anderebide Iurretako Emakumeen Elkartearen batzar nagusia, 15. urteurrena.** Ibarretxe kultur etxean.

**19:00 2. Mailako bikotekako Bizkaiko esku pilota txapelketa**

**21:00 Alarma Morea taldea.** Askondon.



ALARMA MOREA

## IRAILAK 28

### SAN MIGEL BEZPERA

**12:00 Jaien hasiera Montoitik. Ondoren, kalejira herrian zehar, Bizkaiko gaiteroek alaituta.**

**13:00 Paella solidarioa, 'Una esperanza para Celia'** Askondon.

**14:30 Gazte bazkaria.** Plazan.

**18:30 Ohiturazko Doniel Atxa. Jarraian, Iurretako dantzarien azken entsegua.**

**21:30 Tributo a Mecano.** Askondon.

**22:30 EzDokBape kontzertua.** Plazan.

**23:30 Beranduegi erromeria.** Plazan.

## IRAILAK 29

### SAN MIGEL EGUNA

**9:00 Dorletako Santutegira eskaintza. Txirridulari elkartearen 40. urteurreneko mailloa bertan uzteko.**

Irteera: Eskoriatzatik Leintz Gatzagako Dorleta Santutegira.

**11:00 Dantzari eta agintarien kalejira.** Montoitik plazara.

**12:30 Iurretako dantzariak.**

**BANOS IURRETA**  
Erakusketa eta komunikazio osagarrien saila

**ITURGINTZA BEROGAILUA GASA**

Tel./Faxa: 946 202 433  
NICO: 644 706 174  
E-maila: [b.iurreta@yahoo.es](mailto:b.iurreta@yahoo.es)

Maspes kalea, 4 - 48215 Iurreta

**INSTALAZIOAK ETA BERRIKUNTZAK**

**ALDA S.L.**

- ITURGINTZA
- BEROGAILUA
- GASA
- IGELTSEROTZA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Uraide, 8 - behea  
48215 Iurreta  
Tel.: 946 812 086  
[cons.alda.sl@gmail.com](mailto:cons.alda.sl@gmail.com)

**IURRETA**

**HARATEGIA FRUTA - DENDA**

Bizkaia Kalea, 4 - IURRETA  
Tel.: 687 568 200

**IK**

**IURRETA KOPISTEGIA**

Bidebarrieta 1, behea  
48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 946 811 070

[info@iurretakopi.com](mailto:info@iurretakopi.com)  
[www.iurretakopi.com](http://www.iurretakopi.com)

**Smurfit Westrock Central Forestal**

**Smurfit Westrock Nervión**

**+55 urte**  
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINITZEN

**Mallabiena**

**M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena Industrialdea, 6  
48215 IURRETA  
Tel.: 946 818 062 / 946 816 051  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)  
[www.mallabiena.com](http://www.mallabiena.com)



**Ondoren, trikitilariak.****17:30 Herri kirol erakustaldia.**

Parte hartzaileak: Ioritz Gisasola 'Zelai IV.a', Urdax Magunazelaia, Jon Gisasola 'Zelai V.a', Xabier Gutierrez eta Karmele Gisasola 'Zelai III.a'.  
Plazan.

**18:30 Iurretako dantzariak.**

**20:00 Kantu eta dantza Eingo taldeagaz.**  
Plazan.



EINGO TALDEA

**IRAILAK 30**

**12:30** Kalejira Montoitik, trikitilariak alaiturik.

**17:00** Sigi Saga Bizikletako jolasak, eta, jarraian, txiki merienda.

**Askondon.**

\*5 urtetik 12 urtera arte. Tiketak Ibarretxe kultur Etxean Irailaren 16tik 25era bitartean.

**18:30 Harri proba erakustaldia. Harriti emakume taldea.**

**19:30** Garaia Durangaldeko ikus-entzunezko biltegiko Iurretako bideo zaharren emanaldia. 'Iurreta askatu (1985)' Juanjo Lopez zuzendaria. Jaietako mozorro eguneko ikuskizun zaharra. *Goiuria Ikastolan.*

**URRIAK 3**

**19:00** XXXVIII Cafes Baque eskuz banakako pilota txapelketako finalerdiak.

**19:30** Bideo emanaldia: 'Azken Dantza maisua' dokumentala. *Ibarretxe kultur etxean.*

**URRIAK 4****MOZORRO EGUNA: OCTOBER FEST**

**17:30** Pintxo txapelketa. *Etxegon.*

**Arratsaldean Tortila Txapelketa. Kaskoan.**

**20:00** Tortilen aurkezpena. *Askondon.*

**21:30** "RUMBO A TIJUANA" Mariatxiak. *Askondon.*

**22:30** Bertso saioa: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Bartra, Xabat Gallettebeitia. Gai jartzailea: Ainhoa Urien. *Kepa Arroitauregi frontoian.*

**22:30 - 1:30** Alkoholaren arriskuak murrizteko aktibitatea.

**24:00** Kontzertuak: Ziñez eta Raimundo El Canastero. **Ondoren, Lumatxak DJa.** *Plazan.*

**URRIAK 5**

**12:30** Aburrecalles txaranga.

**14:30** Paella txapelketa. **Ondoren, bazkari herrikoia.** *Askondon.*

**18:30** Aburrecalles txaranga.

**21:00 - 22:00** Luhartz erromeria. *Plazan.*

**22:45** Luhartz erromeria. **Ondoren, Xaukena Xauk DJa.** *Plazan.*

**URRIAK 6 ERROSARIO EGUNA**

**10:00 - 14:00** XXIV Nekazaritza eta Artisautza Azoka. *Olaburun.*

**11:00** Dantzari eta Agintarien kalejira. *Montoitik plazara.*

**12:30** Iurretako dantzariak. **Ondoren, Igel Txapelketa.**

**18:00** Dantza ikuskizuna. Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua. *Plazan.*

Ondoren, jaietako errifen zozketa.

**20:00** Herri afaria. *Plazan.*

**20:30** Erromeria Lorratz taldeagaz.

**Plazan.**

**22:00** Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz.

**URRIAK 11**

**19:00** Erromeria Intxausti eta Larrañaga trikitilarietara. *Plazan.*

**URRIAK 12****URRIJENA**

**09:15** Argazkia. *Iurretako Plazan.*

**10:15** Kalejira aparkalekutik plazara, herriari buelta emanez.

**12:00** Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza

**Jarraian, omenaldiak 65 urtetik gorakoei.**

**Amaitzeko, Soka Dantza.**

**15:00** Bazkaria. *Askondoko karpan.*

**17:00** Kantaldi/dantzaldia Bada Giro taldeagaz.



Mallabiena industrialdea, SAPU.T 11-15 pabilioiak  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel. 946 814 890 - Fax: 946 816 245  
contacto@caldereriariarte.com

[www.caldereriariarte.com](http://www.caldereriariarte.com)

**Instalazioak eta konponketak:**

PRENTSA HIDRAULIKOAK  
PRENTSA MEKANIKOAK  
ELIKAGAILUAK  
MAKINEN BERRERAIKETA

Arriandi industrialdea, E - 37  
Tel: 94 681 24 06 - Mug: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89  
moinbeberrizsl@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia



Actual: 4814 euromaster.com

PNEUMATIKOAK - OLIO  
ALDATZEA - BERRIKUSPEN  
OFIZIALA - BALAZTAK  
MOTELGAILUAK



AUTOSERVICIOS NIFA

Mallabiena auzoa, 4  
48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel (kamioiak): 946 812 604  
Tel (turismoak): 946 812 566

nifa@autoserviciosnifa.com



SERAPIO CALVO  
Pladur - Aislamientos - Escayola

TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK  
Igeltzu-dekorazioa  
Sabai desmontagarriak • Isolatzeak

946 811 512 • 615 789 243  
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta  
info@serapicalvo.es • [www.serapicalvo.es](http://www.serapicalvo.es)



ARRIBIDE  
GASOLINDEGIA

946 818 381  
ARRIANDI INDUSTRIALDEA, P-1  
48215 IURRETA- BIZKAIA  
estacionservicio@arribide.com





lazko mendi martxaren irudi bat. ZALDAI MENDI TALDEA

# Mendi martxa herrikoia jaien atariko modura

Zaldai Mendi Taldeak dena prest du aurtengo mendi martxa beti bezain arrakastatsua izan dadin. Mendizaleak 08:30ean irtengo dira plazatik. Ibilbide bi izango dituzte aukeran; 24,5 kilometrokoa, luzea, eta 14,2 kilometrokoa, laburra

## Ekaitz Herrera MENDI MARTXA

Gero ere egongo da plazan dantza egiteko denbora, kalean gora eta behera ibiltzekoa, lasai. Ez izan horren beldurrik. Baina, lehenengo eta behin, kirola, apurtxo bat behintzat. Zaldai Mendi Taldea bueltan dator, jaien atarian hutsik egiten ez duen mendi martxaren edizio berri batez. Domeka honetarako, irailak 22, udalerriko mendi bazterrek zeharkatzen dituen ibilbide herrikoia edizio berri bat antolatu dute. Eta, jakina, hitzorduak apurka-apurka jaietan sartzeko lagunduko die herritarrei. "Mendi martxa herriko jaiak hasi aurreko asteburuan egiten denez, ia-ia jaietan egotearen pareko zoezer sortzen da giroan. Txosnak muntatuta egoten dira, eta martxa amaitzen denean plazan sortzen den giro horrek, errugbian *hirugarren denbora* modura ezaizten den pareko giro horrek, jendea gustura egotea ekartzen du", azaldu du Asier Iza mendi martxako antolatzaileetarikoa batek. "800 parte hartzailez osaturiko edizioak bizi izan ditugun arren, normalean 400-500

parte hartzaile batzen gara. Aurtengoa ere kopuru tarte horretan ibiliko dela aurreikusten dugu", gaineratu du.

Mendizaleek ibilbide bi izango dituzte aukeran: 14,2 kilometrokoa eta 24,5 kilometrokoa. Lehenengoan, Bitaño, Neberondo, Santa Luzia, Landaederra eta Santa Apolonia zeharkatuko dituzte. Bigarrean, Leungane alderako igoera gehituko diote apaturikoari. Edozelan ere, bata ala bestea aukeratu, mendizaleek martxaren izaera herrikoiaz gozatu ahal izango dute egindako kilometro bakoitzeko. "Lau-bost lagun dira mendi martxa hau buru-belarri prestatzen dabilzanak, baina gero herritar askok laguntzen dute, anoa guzuetan egonda, bidea markatzen, izena ematera datozen mendizaleei harrera egiten zein txosnako sukaldean kozinatzen", azaldu du Izaera. Eta, ondo pentsatuta, ez ote da hori izango arrakastaren giltza? Lanketa herrikoia berezko duen mimo hori? Domekan, behintzat, horri eutsiko dio Zalduen, beste edizio batez. Jaien atariko mendi martxa egingo du, baina jai giroan.

**GauArgi**  
Dantzari, 4 - behea  
IURRETA

Tel.: 944 366 874  
Gosariak, pintxoak, molleteak, rabak, errazioak eta eskotariko tortillak enkarguz,...

**HEKI**  
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552  
heki.iurreta@gmail.com

HeKi Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK  
**IZARBE**

LANPARAK  
OPARIAK  
SUKALDEKO ETA  
ETXKO ALTZARIAK

Tel.: 946 812 280  
izarbe@izarbe.com

Bizkaia Kapanaga, 3  
48215 Iurreta / Bizkaia

**DESGUACES  
PILASTRA**

Fauste auzoa 18, Iurreta  
Tel.: 946 201 787

ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.

Dantzari Auzunea, 8  
48215 Iurreta  
Tel.: 94.681.14.79  
628.233.584  
www.garajesanmiguel.es  
garajesanmiguel@gmail.com

**Garage SAN MIGUEL** de Iurreta, S.L.U.

Garage **SAN MIGUEL** plus taller profesional

Kutxa automatikoaren mantentzea  
Mekanika orokorrean  
Zerbitzu birkorra  
Mantentzea  
Elektrizitatea  
Pneumatikoak  
Diagnosia  
IAren aurrekoa  
Aire egokitua

**JAVI**  
HARATEGIA

Astorketa Kalea, 1 - Iurreta  
Tel.: 944 66 80 38





Astelehenean egindako prentsaurrekoko argazkia.

# Raimundo El Canastero eta Luhartz Iurretan

Iurretako jaiak irailaren 28tik urriaren 6ra bitartean ospatuko dituzte. Hala ere, lehenagorako ere hainbat ekintza antolatu dute: bihar Ahari Iurreta eta Emakume Sortzaileen Azoka egongo dira, eta etzi XIII. Mendi Martxa

## Maialen Zuazubiskar JAIAK

Iurretako jaiak irailaren 28tik urriaren 6ra bitartean ospatuko dituzte. Hala ere, asteon Iurretako plazan egin duten prentsaurrekoan jakinarazi dute jaietako egitaraua hasita dagoela dagoeneko, eta urriaren 12ra arte iraungo duela. Bihar, esaterako, Ahari Iurreta bizikleta martxa eta Emakume Sortzaileen Azoka egongo dira, eta domekan XIII. Mendi Martxa, besteak beste.

Irailaren 28an emango diete hasiera ofiziala jaiak, San Migel bezperan. Ohikoa duten moduan, 12:00etan Montoian batuko dira, eta, ondoren, paella solidarioa eta gazte bazkaria egongo dira. 18:30ean Doniel Atxa jasoko dute. San Migel bezperan ez da muskarik faltako, eta 21:30ean Tributo a Mecano taldea egongo da Askondon, 22:30ean Ez-DokBape taldeak kontzertua joko du plazan, eta, ondoren, Beranduegi taldearen erromeria izango da. San Migel egunez, dantzarien saioek hartuko dute protagonismorik handiena Iurretan; arratsaldean herri kirolak eta Eingo taldeagaz kan-

tu eta dantza saioa egongo dira, besteak beste.

Bigarren asteburuan ere adin eta gustu guztientzat egongo dira ekintzak: mozzorro eguna, paella txapelketa, bertso saioa, Ziñez eta Raimundo El Canastero musika taldeak, eta Luhartz taldearen erromeria, besteak beste.

"Plaza da jai batzordearen lekua, eta, horregaitik, gure ekintzarik gehienak bertan egiten ditugu, baina azken urteotan ekintza batzuk herrigunera ere eraman ditugu. Aurten ere ahalik eta egitaraurik borobilena antolatzen ahalegindu gara, denen gustukoa izan dadin", adierazi zuen Miren Abasolo jai batzordeko kideak.

Bestalde, Zorione Fundazuri zinegotziak eskerrak eman zizkien jai batzordeko kideei jaiak antolatzeko egindako lanagaitik, eta baita herriko elkarteetara ere. Horrez gainera, aurten herriko hiru elkarteren urteurrena ospatuko dutela azpimarratu zuen. Anderebidek 15. urteurrena ospatuko du, Etxego Gaztelekuak 5.a, eta Iurretako Txirrindulari Elkarteak 40.a.

www.zuremenua.eus 688614162 info@zuremenua.eus

etxerako zein lantokirako catering zerbitzua

**Zuremenua**  
gozatzeke otorduak

ospakizunak • txokoak • herri bazkariak  
jaiak • enpresa bazkariak • luntxak

**txirula**  
MUSIK

www.txirula.com

Pol. Ertzola, Pab. 5 n° 20 Iurreta  
48215 Bizkaia.  
94 661 14 43  
info@txirula.com

**BODEGUILLA**

944 669 357  
bodegullaiurreta

**Forjas de Berriz**  
GRUPO BERRIZ DE FORJA

Pieza berezien forjaketak beroan

Pol. Ind. Tabernabarni N° 1A  
48215 IURRETA (Bizkaia)

Tel.: 946 826 520  
www.forjasdeberriz.com

**IKUSPEGI BERRIA**

Eguneko menua  
astelehenetik barikura

Asteburuetan  
kartako menua

Pintxoak eta errazioak  
egunero

Martitzenetan ibita,  
asteko atseden eguna

Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta - 944 667 41 08

**FURESA**  
FUNDICION NOGUILAR

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Etxe Industrialea, 45 Gersia A - BERRIZ  
Tel./Fax: 946 824 143 - Mug.: 656 758 421  
info@jaioarnizatuak.com  
www.jaioarnizatuak.com





Iurreta Txirrindulari Elkarteko gaur egungo kide eta sortzaileak.

# Iurreta Txirrindulari Elkarte, 40 urte pedalei eragiten

Jaien harira, hainbat ekitaldi antolatu dute; tartean, Ahari Iurreta eta erakusketa. Irailaren 29an, maillot eskaintza egitera joango dira Dorletako santutegira

## Jone Guenetxea IURRETA

Tarte bat topatzen duten bakoitzean errepidera irteten dira pedalei eragitera. Zaletasuna dute, eta gogoia ere bai. Iurreta Txirrindulari elkarteko kideak zikloturismoa bultzatzen dabiltza lau hamarkadatan. Urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dute. Horietariko batzuk Iurretako jaien bueltan egingo dituzte.

## Ahari Iurreta eta erakusketa

Asteburura begira, Iurretako jaien egitarauaren barruan, zapatuko Ahari Iurreta antolatu dute, 90 kilometroko ibilbidea duen irtenaldia. Erritmo suabea egiteko asmoa dutenak 07:45ean irtengo dira, eta bizkorrago joango direnak 08:30ean. Ibilbide hau egingo dute: Iurreta, Elorrio, Miota, Olakueta, Trabakua, Markina, Milloi, Oleta, Munitibar, Astorkia, Marmiz, Mendata eta handik Iurretara.

Domekarako (irailak 22) erakusketa prestatu dute. Iurretako karpan izango da. Argazki zaharrekin osaturiko erakusketagaz elkartearen ibilbidea erakutsiko dute, 10:30etik aurrera. Horretarako, hamar argazki olanetan

ipiniko dituzte, eta, horrez gainera, pantaila batean proiektzioa egingo dute. Hau guzti hau trikitilariak girotuta egingo dute. Bizikleta martxa retroa ere egingo dute.

## Berbaldia eta maillot eskaintza

Jaien inguruko egitarauagaz lotuta, urriaren 25erako berbal-di bat antolatu dute. Ibarretxe kultur etxean izango da.

Irailaren 29an, Iurreta Txirrindulari Elkarteko kideak Dorletako santutegira joango dira maillot eskaintza egitera. Bestalde, azaroaren 30ean elkartearen urteko bazkaria egingo dute, Bakixako soziedadean, elkartea eratu zen leku berean.

Orain 40 urte elkartea sortu zutenean, Iurreta Durangotik desanexionatu barik zegoen oraindino. Hala ere, elkartea Iurretako herrigintzan eragile

## ZAPATUAN AHARI IURRETA PROBA EGINGO DUTE, 90 KILOMETROKO IBILBIDEKOA

BULEGOIARI ZIGILUAK FOTOLITOKAK

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bilente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**IBAI-ONDO**  
Olimpia

Zubiaurre kalea, 11  
Tel.: 668 505 682

@ ibaiondolurreta

LOTERIA ETA APUSTUEN ADMINISTRAZIOA  
- IURRETA -

Dantziari kalea, 4 - TEL: 946 203 159

Loteria y Apuestas del Estado

**BIKE&SNOW**  
**UNDARRI**

Aitor Undarri  
www.undarri.eus  
info@undarri.eus  
TIF.: 946 817 808

ZUBI BIZIKLETA ETA ENKATU TALDEA

**anboto**  
CALDERERIA

GALDARAGINTZA FINA ETA ERDI ASTUNA

Ariandi poligono industrialia, 7-A  
48215 Iurreta  
946 583 133 / 817 825 997  
carboto@anboto.com

**ESTANCO**  
IURRETA

Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta  
Tel.: 944 668 237

**URALDE**  
KLINIKA DENTAL

667 097 575 · 946 550 055  
info@klinikauralde.com  
www.klinikauralde.com

Urzalde 1, beheko  
48215, Iurreta, Bizkaia

**ae**  
**ARRIAUNDI**  
EGURRAK, S.L.

Santa Mana, 8  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: /Fax: 946 812 347  
arriandiegurak@hotmail.com

**GERLARI**  
KIROL ZENTROA

JORGE HURTADO Zuzendaria

622 753 458  
jorgehurtadonieves@gmail.com  
Dantziari kalea, 6 beheko  
48215 Iurreta (Bizkaia)



aktiboa izateko bokazioagaz sortu zela nabarmendu du Fernan Ruiz kideak. Lau hamarkada geroago, Iurreta Txirrindulari Elkarteak 230 bazkide ditu.

**Emakumeen Bira bultzatzen**

Elkartek emakumeen txirrindularitza bultzatu du urte askoan; izan ere, Emakumeen Biraren sortzailea eta antolatzailea izan zen. 1988an hasi zuten ibilbidea, "lehiatu gura zuten emakume txirrindulariei aukera hori eskaintzeko". Elkarteko kideek gogoratu dutenez, "hasieran Bizkaian jokatzzen zen gehienbat. 1992tik aurrera, lasterketa profesionala izan zen eta 2004an goi mailakoa bihurtu zen. Gure klubak 2008an antolatu zuen azkenengoz, eta, hortik aurrera, Emakumeen Euskal Bira izena hartu zuen", gogoratu dute elkartekideek.

**DOMEKARAKO  
(IRAILAK 22)  
ERAKUSKETA  
PRESTATU DUTE  
IURRETAKO KARPAN**



Elkarteko kideen argazki zaharrak.



Elkartek urteurrenerako Iurretako plazan ateratako argazkia.

**Belar**  
Metal Casting

Padureta Industrialdea 4  
48215 Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 943 03 80 79  
comercial@belarmc.com  
www.belarmc.com

**REKA**

Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak

Dantzari Auzunea, 4-5 / Iurreta  
Tel.: 630 149 417

**ASIMAIR**  
COMPRESORES

**SALMENTA ETA ASISTENTZIA  
TEKNIKO ZERBITZUA**

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16 · 48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 202 415 · asimair@asimair.com

**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozqueta errepidea)  
48215 IURRETA / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

ofizialako telefonoa: 682296161  
tallerreko telefonoa: 646762022  
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com  
www.amayaautoreparaciones.com



# 50 emakume sortzailearen lanak zapatuan Iurretan

Emakume Sortzaileen Azokak laugarren edizioa izango du aurten. 11:00etan hasiko da eta Iurretako plazan egingo dute. Auskari Gazte Feminista taldea da antolatzailea. Deneriko produktuak egongo dira eskuragarri: jantziak, bitxiak eta abar

## Maialen Zuazubiskar AZOKA

Iurretako Auskari Gazte Feminista taldeak antolatuta, Emakume Sortzaileen Azoka egingo dute zapatuan, irailak 21, Iurretako plazan. Emakume Sortzaileen Azokak laugarren edizioa izango du aurten eta 11:00etan hasiko da. "Eguraldia lagun izatea espero dugu, eta azoka arazorik barik egitea", azaldu dute antolatzaileek. Euria eginez gero, azoka bertan behera geratuko dela jakinarazi dute.

Azken edizioetan legez, antolatzaileek 50 posturen muga ipini dute aurten ere. "Azokako eremua ondo kudeatzeko, muga ipintzea erabaki genuen, eta

horrela jarraitzen dugu", argitu dute. Azokan, Euskal Herriko hainbat lekutako emakume sortzaileak batuko dira: Donostia-koak, Bilbokoak, Gasteizkoak, Burlatakoak, Hernanikoak, Lekeitiokoak eta Elgoibarrekoak, besteak beste. Azokan egongo diren 50 postuetatik erdiak baino gehiago Durangaldeko sortzaileek osatuko dituzte.

Produktuei dagokienez, Emakume Sortzaileen Azokaren laugarren edizio honetan deneriko produktuak egongo dira eskuragarri: jantziak, bitxiak, ilustrazioak, kosmetika naturalak eta kakorratzagaz egindako produktuak, besteak beste. Ogia

eta pastak erosteko aukera ere egongo da bertan.

## Musikagaz girotuta

Bestalde, ohikoa duten moduan, 12:50ean Auskariko kideek berba hartu eta ekitaldia egingo dute. 13:00etatik aurrera, zuzeneko musika egongo da azoka girotzeko.

**50 POSTUETATIK ERDIAK BAINO GEHIAGO ESQUALDEKO SORTZAILEEK OSATUKO DITUZTE**



Iaz jendetza batu zen azokan. MAITANE TOTORIKA



Euskal Herriko emakume sortzaileak batzen dira azokan.

**GOZOTEGIA**  
**gozatu**  
**DURANGO**

**San Migelak!!!!**

**Azken biak!**

**Elorrion**

**BETI GERTU!**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, behea  
48215, Iurreta



# UDAKO 10.ARGAZKI LEHIAKETA



Eman zure botoa [www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
webgunean irailaren 16tik 22ra bitartean

*Durangaldeko argazki  
irakazlea  
2023*

*Durangaldetik kanpoko  
argazki irakazlea  
2023*



# OSASUN GIDA

 **Podologia**  
PSE: 214/06


  
**Podinara Urreta Jainaga**  
OINEN ZAINITZA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK  
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13


  
**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA  
- JOKABIDE OPTOMETRIA - HAURREN IKUSMENA  
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA - JATORRIZKO ERREFLEKUA - FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA  
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA - KIROL IKUSMENA - GARLUNEN KONTROLA - UKOPEN LENTEAK  
- ORTO-KETA MIOPIAREN KONTROLA  
Arkat 3 - 48240 Berriz - Tel.: 946 225 099  
www.keinuoptometrizentroa.com

 **Proktologia**  
PSE: 16/22


  
**pröktos.clinic**  
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua  
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

  
**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia  
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Solo pertsonalizatuak dira, talde txikietan.  
Trañabarren 13, 4. blokea beheko eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

  
**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia  
Muruetatorre, 2D  
DURANGO  
pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

  
**clincidental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarría  
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO ETA IKUSEZINA) - ODONTOPEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (TERO ETA CBCT)  
( Muruetatorre, 2C blokea, beheko - 48200 Durango )  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

*Aurora Julià*  
**HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA**  
Umeak - Helduak - Nagusiak  
Ordua hartzeko:  
**946 204 218**  
Txanporta Plaza, beheko - Abadiño  
[www.aurorahomeopata.eus](http://www.aurorahomeopata.eus)  


 **Psikologia**

  
**gure**  
Zure bidelagun  
Haur, nerabe eta helduentzat  
- ikasketa-arazoak, arazotasunak eta estresa, depresioak, estoko eta ikasketen zailtasunak, amaia gaitortasunak, familiar-arazoak, pertsona-arazoak, esperimentu kognitiboak, orpimena, hilkortasun arazoak, kognitiboak, elkarburu-portutara, diskalkulia eta besteak.  
**623 173 181 - 613 038 933**  
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

  
**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Klinika batzuk hainbat lekutan Durango  
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.  
Dokumentuak  
Ateraberriz eskaintza: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunegia: itzazko familia  
944 14 80 36 | 620 18 30 30  
Asteazkenetik ostirara: 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)





Borja Moronati, Aritz Cordoba 'Txepetxa' eta Jon Arrinda.

## 20 urteko jarduna binilo bikoitz batean bilduta

**MUSIKA** Kaleko Soinuak Kaleak Astintzen kolektiboak Durangaldean 80ko eta 2000ko hamarkaden bitartean sorturiko musiken lekukotza batzen duen bilduma kaleratu du; domekan aurkeztuko dute, Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan, egun osoko jaietan

**Aritz Maldonado** DURANGO

Ipurterreak izaeraz, kalera irteera mugatuta zegoen garai batean ekin zioten Kaleko Soinuak Kaleak Astintzen kolektiboko kideek euren proiektu berriari: Durangaldeko azken hamarkadetako doinuak batzen dituen bilduma kaleratu gura zuten, biniloan. "Ia lau urteko lana izan da, baina merezi izan du", azaldu du Borja Moronatti kolektiboko kideak. Lehenengo, taldeen zerrenda egin zuten, eta gero, aurkeraketa. "Taldeen atzetik ibil-

tzek eman digu lanik gehien. Orokorrean, proiektuak oso harrera ona izan du, baina askok ganbarara jo behar izan dute grabazioen bila. Batez ere 80ko hamarkadetako taldeetako kideekin gertatu zaigu; askok ez zekiten non zeuzkaten gordeta grabazioak", gehitu du Aritz Cordoba 'Txepetxa'-k, barrez. "Los Lopez mitikoeak, adibidez, argitaratu bako abesti bat sartu dute bilduman; Ostias Mil eta Street Girls taldeek zuzeneko grabazioak sartu dituzte, ez zeu-

katelako grabaziorik, pentsa. Denerik dago". Handik eta hemendik batuta, azkenean 29 abestitako binilo bikoitza kaleratu dute, 80ko, 90ko eta 2000ko hamarkadetako Durangaldeko taldeen uztzagaz: Amonal, Poliputos, Hyssopus, Sklerosis, Dirties, Argamboys, Arto Bixarrak eta Disorders taldeek parte hartu dute abentura honetan. "Lan txukuna egin dugula uste dugu, hainbat garai eta doinu batu dugu, baina, funtsean, inguruko eszenaren lagin bat da hau",

azpimarratu du Jon Arrindak. Punk, ska, hardcore eta rock doinuak daude bilduman, garai baten lekuko gisa. Hain zuzen ere, disko bikoitz hau hiru bolumenetako proiektu handiago baten lehenengo urratsa izan da. "Gure asmoa beste bolumen bi kaleratzea da. 80ko hamarkadan hasi, eta gaur egunera arteko soinuen bilduma izatea gura dugu", argitu dute. Horrela, dei egin dute proiekturako kontuan hartzea gura duten taldeek euren abesti eta informazioa [kaleko-soinuak@hotmail.com](mailto:kaleko-soinuak@hotmail.com) helbide elektronikora bidali dezaten.

Anartz Aranguena tatuatzailea arduratu da bildumaren diseinuaz, eta Gorka Bidaurrezaga 'Potti' masterizazioaz. KSKAko kideek Pablo Run Togetherrek ekoizpen lanetan eman dien laguntasuna eskertu gura izan dute.

KSKAko lagunek beste proiektu interesgarri bat ere ondu dute ikasturte hasiera honetarako. Kolektiboaren bosgarren urteurrena dela baliatuta, Garai Agro Brewery konpainiagaz batera IPA garagardo berezi bat ondu dute elkarlanean. "Aspaldiko lagunak ditugu, eta gu ere garagardozaleak izanda, proiektu polita iruditu zitzaigun, modurik onena urteurrena ospatzeko", gehitu du Moronattik.

**Aurkezpen jaiak, domekan**

Bildumaren proiektua lan nekeza izan dela onartu dute, eta KSKAko kideek amaiera borobila eman gura diote. Horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute domekarako. "Ia lau urte eman ditugu honetan buru-belarri lanean, eta lana borobiltzeko modurik onena jai bat egitea izango zela pentsatu genuen", azaldu du Arrindak.

Eguerdian zabalduko dituzte ateak, 12:00etan, eta etxeko disko jartzaileek girotuko dute ekitaldia. Gero, proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzte. 13:30ean, Abadiñora doazenez garagardo berria dastatuko dute, primizian, eta bazkalteko aukera ere egongo da.

Bestalde, arratsaldean kontzertuak egongo dira. "Bilduman parte hartu duten 29 taldeei eskaini genien revival txiki bat egiteko aukera, eta horietariko lau animatu dira kontzertu labur bana ematera", azaldu du 'Txepetxa'-k. "Taldekideetariko asko musika zirkuitutik kanpora daude gaur egun, baina, orokorrean, ederto erantzun dute, eta esandakoa, batzuk kontzertua ematera ere animatu dira", gaineratu du. Zuzeneko emanaldiak 16:30 inguruan hasiko dira, eta sarrera hiru euro ordaindu behar da; sarrera guztiak salduko balira, bertaratzen direnek terrazan egoteko aukera edukiko lukete. Kolektiboko kideak gustura daude kontzertua Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan egingo dutelako, baina arantzatxoa sartuta dute ezin izan dutelako Durangon egin. "Lotsagarria da! Durangon ez dago aretorik, ez kontzertuak egiteko, ez ikusteko, ez antolatzeke. Sapuetxe eta Sorginola gaztetxeak eraitsi zituzten, eta Plateruena ere itxita balego legez... Gainera, zeozer antolatzeke udalari baimena eskatu diogunean, dena trabak izan dira", esan du.

**KSKA-K BESTE BILDUMA BI KALERATZEA GURA DU, AZKEN HOGEI URTEEN LEKUKOTZA MODURA**

## Markeliñek amaituko du Berriz Kulturaz Blai zikloa, egunean

**ANTZERKIA** Irailaren 26an izango da 'Art ilusio' antzezlanaren emanaldia, 17:00etan, eskolako patioan

**A. M. BERRIZ**

Berriz Kulturaz Blai zikloak Markeliñeren *Art ilusio* lanagaz agurtuko du aurtengo ekinaldia. Greta da antzezlan honetako protagonista. Adineko emakume maitagarri eta irakurzalea da

bera. Pina bere laguntzailea da, egunero Greta esnatzeaz eta zaintzeaz arduratzen da. Gretak liburuak ditu pasio, eta alboan duen makina erraldoia ere liburu horiekin elikatzen da. Horrela, Gretaren bihotz taupadak

eta makina sinkronizatuta daude, fantasiako mundu bat eraikitzen, pertsonaia eta testuinguru propioekin. Ikuslea mundu horretan murgiltzera gonbidatuko dute. Itziar Fragua, Fernando Barado eta Maite Bayon antzezleek azalduko dute magia hori; Iñaki Egiluzek koordinatu du obra.

Irailaren 26an izango da kaleko antzerki emanaldia, 17:00etan, eskolako patioan. Guztira, sei obrak osatu dute aurtengo Berriz Kulturaz Blai zikloa.



'Art ilusio'. MARKELIÑE



# 59. Durangoko Azokako egitaraua, martxan

**DURANGOKO AZOKA** 59. Durangoko Azokako egitarauak lantzen hasi dira guneetako arduradunak; sortzaileen proposamenak aurkezteko epea zabaldu dutela iragarri dute; abenduaren 5etik 8ra bitartean izango da kultur topagunea aurten

**A. M. DURANGOKO AZOKA**

Durangoko Azokaren 59. edizioa hasi da forma hartzen, eta Ahotsenea, Irudienea, Kabia, Saguganbara, Szenatokia eta Talaia guneetako arduradunak hasi dituzte prestaketa lanak. Abenduaren 5etik 8ra bitartean, ekintzaz josirik egongo dira gune horiek, eta sortzaile, argitaletxe eta diskoetxeek egitaraua osatzeko euren proposamenak egin ahal izango dituzte irailaren 16tik urriaren 7ra bitartean. Horretarako, Durangoko Azokaren webgunean egin beharko dute ekarpena. Hain zuzen ere, Ahotsenea gunearen kasuan, orain arteko prozesua moldatu egingo dute aurten. Proposamenak heltzeko ordena ez da arau izango, eta epearen barruan aurkezten diren eskari guztiak baloratuko dituzte arduradunak.

Horrez gainera, aurten, berriro ere, Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Bizenta



Artxiboko irudia. DURANGOKO AZOKA

Mogel Bibliotekan ere egingo dituzte ekintzak azoka egunetan.

Ikasle Goiza abenduaren 5ean izango da. Bertaratu gura duten ikastetxeek izena emateko aukera dute Durangoko Azokaren webgunean *durangokoazoka*.

*eus*. Azoka bisitatzeaz gainera, ikasleek eta irakasleek taillerretan parte hartu ahal izango dute. Horrez gainera, LH, DBH eta Batxilergoko ikaslentzat PortaDA! erronka ipini dute martxan.



Eneko Sagardoy. TANTTAKA

## Eneko Sagardoy, ama bati quintasuna itzultzeaz

**ANTZERKIA** 'Emakume baten metamorfosia eta borroka' euskaraz estreinatuko dute Durangon, zapatuan

**A. M. DURANGO**

*Emakume baten metamorfosia eta borroka* antzezlanaren izen bereko liburuaren egokitzapena da. Obra autobiografiko honetan, Eneko Sagardoy aktore durangarra Edouard Louis idazlearen azalean sartuko da, eta hausnarketarako gonbidapena egiten du. Louisen amak (Vito Rogado aktorea) ihes egin zuen etxetik, gizonetakoek -baita senarrak eta semeak ere- eragindako sufrikarioaz nazkatuta. Denboragaz, semearen bidea eta berea berriro gurutzatuko dira, eta semeak quintasuna itzuli gura izango

dio, zintzotasun autokritiko prozesu baten ondoren.

Apirilean estreinatu zuten antzezlanaren gaztelaniazko bertsioa, eta antzokirik garrantzitsuenetan aurkeztu dute; besteak beste, Bilboko Arriagan eta Donostiako Victoria Eugenia. Tanttakak Arriaga Antzokiagaz batera garatu zuen proiektu hau. Zapatuan izango da euskarazko bertsioaren estreinaldia, irailak 21, 19:00etan. Azken sarrerak baino ez dira geratzen salgai. Ondoren, Santurtzin, Sopelan, Altsasun eta Gernikan antzeztuko dute, besteak beste.



## GAI LIBREAN

**AINHOA OLASO SOPEANA** BEHARGINA

## Edozer irensteko dohaina lortu dugu

Kasu baten berri jaso duzu. Edozein momentutan eta eratan izan zitekeen, eta heldu da. Eta hartzen zaitu halako azal kapa batek, goitik beherakoa, une batetik bestera zure egoteko modua aldatzeko gai dena.

Batzuetan kokodriloaren azalaren antza du: ezkatasua, lehorra eta gogorra. Animalia bihurtu eta 84 hortzekin, abiadura handian haginka egiteko gogoa sartzen zaizu.

Beste batzuetan, iraileko mahatsaren azaletik hurbi-lago dagoen kapa izaten da. Fina eta haragitik ia banaezina. Fruitu alearen tamaina hartu dezakezu: erramutik askatu, erori eta inor konturatu gabe bazter batean galtzeko arriskuarekin.

Edo ikusgarritasuna galarazten duen estalkia dator-kizu goitik beherako hotzikarekin batera. Estalkia, kamuflajezkoa. Ezkutatu, ezikusiarrena egin eta bizirauteko erabili izan duzuna.

**"EDO IKUSGARRITASUNA GALARAZTEN DUEN ESTALKIA DATORKIZU GOITIK BEHERAKO HOTZIKAREKIN BATERA"**

**"ESTALKIA, KAMUFLAJEZKOA. EZKUTATU, EZIKUSIARENA EGIN ETA BIZIRAUTEKO ERABILI IZAN DUZUNA"**

Eta beste kasu baten berri jaso duzu: Yanely, aurreko astean senarrak etxean erail zuen santutxuar gaztearena. Ohikoegia bihurtzen ari den anestesia sozialaren erdian zerbait sentitzeko asmoz, notiziari behar duen gordintasun maila ematen saiatzen zara kontaezinak diren estrategiekin. Eta bata bestearen atzetik datoz... Zurrumurruka dakizkigun inguruko ospetsuen bortxaketa kasuak, bikote eta bikotekide ohiekin errepikatu nahi ez ditugun errelatoak, beti irabazten irtezen diren gizonenak... Baina indarkeria horiek denek, ahalbidetzen eta onartzen dituen jendarte batean baino ez lukete lekurik izango.

Eta Palestina etorri zaizu akordura. Eta hasi zara zapalkuntza kateekin, injustizia eta amorruekin, eta ezinegon komunaren konparatibetan galtzen... Eta mahats ale bat jan duzu eta kontrako eztarritik sartu zaizu.



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO  
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 20

**DURANGO Erakusketa**

'Durango habitat' (Rai Bikandi).  
*Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 29ra bitartean.*

**DURANGO Jaiak**

Txupinazoa eta Ama Birjinari aurrekua, 20:00etan.  
Ondoren, Sugarri fanfarrea.  
Eirband taldea, 21:30ean.  
*Goienkalean.*

**ELORRIO Erakusketa**

80ko hamarkadatik aurrerako borroka sozialen lekukotasuna gordetzen duen erakusketa (Elorria Ekologia Taldea).  
*Iturri kultur etxean, irailaren 30era bitartean.*

**IURRETA Urteurrena**

Etzegoren 5. urteurrena.  
Argazki erakusketa, 17:00etan.  
Ginkana, 17:30ean.  
Gaupasa, 21:00etan.  
*Etxegon.*

**ZORNOTZA Erakusketa**

'Gauoko argazkiak' erakusketa kolektiboa (Uztargi.klik elkarteak).  
*Zelaieta zentroan, irailaren 29ra bitartean.*

**ZORNOTZA Jaiak**

Txupinazoa, 17:00etan.  
Ping-pong eta igel txapelketa, 18:30ean.  
Tortilla txapelketa, 19:00etan (aurkezpena, 20:30ean).  
Zumb@Belen + Dj Zirkin, 19:00etan.  
Kesonikete, 22:00etan.  
Dj Zirkin + Karaokea, gauerdian.  
*Ogenbarrena auzoan.*

## ZAPATUA 21

**ABADIÑO Irteera**

Zornotzara Bizikleta txangoa gazteei zuzenduta. Udalak antolatuta Ganbarru elkartearen laguntzagaz.  
*Astolan, 16:00etan.*

**ABADIÑO Antzerkia**

'El matrimonio Palavrakis' (Angélica Lidell).  
*Errota kultur etxean, 19:00etan.*

**BERRIZ Jaia**

Bizi Berriz Jaia, Berrizko Merkatarri Elkartek antolatuta.  
Izozkiak, 18:00etatik aurrera.  
'Txondatatxondai Dibertsio eta Jai' (Kiki, Koko eta Moko pailazoak).  
*Olakueta plazan (euria bada, frontoian).*

**DURANGO Bisita gidatua**

'Heriotzaren kultura'.  
Izena emateko: 94 603 39 38 / turismo@durango.eus.  
*Turismo Bulegoan, 10:30ean (gaztelaniaz) eta 12:30ean (euskaraz).*

**DURANGO Tailerrak**

Jasangarritasunaren Astea.  
Mountain Bike eta Skate zirkuitua.  
Bizikletak mantentzeko tailerra adingabeentzat (11:00etan) eta helduentzat (12:00etan).  
Bizikleta irteera bizikleta sarea ezagutzeko, 13:00etan.  
Bizikletak margotzeko tailerra eta talo tailerrak  
Eskulanak, jolasak eta xakea.  
*Zumalakarregi eta Joxe Miel Barandiaran kalean.*

**DURANGO Jaiak**

Paella txapelketa, 10:00etan hasita.  
Txorizo banaketa GEU BE-ren eskutik, 13:00etan.  
Sugarri fanfarrea, 13:30ean.  
Paella txapelketaren sari banaketa, 15:30ean.  
Sugarri fanfarrea, 17:30ean.  
Meza hildakoen omenez, 19:00etan.  
DJ Txusti, 21:00etan.  
*Goienkalean.*

**DURANGO Urteurrena**

Larrasoloeta Xake Taldearen 40. urteurrena: Adiskidetasunaren Txapelketa.  
Sari banaketa, afaria eta kontzertua, 20:00etatik 23:00etara.  
*Landako Gunean, 15:30ean hasita.*

**DURANGO Antzerkia**

'Emakume baten borroka eta metamorfosia' (Tantaka Teatrea).  
*San Agustín kultur gunean, 19:00etan.*

**IURRETA Berbalidia**

Senegaleko kulturari buruzko berbalidia, 16:30ean, AND BOLO elkarteak antolatuta.



VIRIDIANA KONPAINIA.

**ELORRIO Antzerkia**

Viridiana konpainiak *Restos de un naufragio* obra aurkeztuko du, Manuel Vicent idazle eta artikulugilearen kazetaritza-lanean oinarritutako lana. Igandeetan, El Pais egunkariaren kontrazalean argitaratu ziren artikuluko. *Irailak 20, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.*

Senegaleko dantza tradizionalak, 17:30ean.

Iurretako dantzariak, 17:50ean.  
Axura komunitateak prestatutako te dastatzea, 18:00etan.  
Senegaleko produktu tipikoen dastatzea, 18:30ean. Dj Gabiren musika afro-afrikarrak girotuta.  
*Askondon.*

**ZORNOTZA Musika**

Leioako San Juan Bautista abesbatza. Eleizatan.  
*Etxanoko Andra Marian, 20:00etan (doako autobusa San Migel kaleko osasun zentrotik, 19:30ean).*

**ZORNOTZA Jaiak**

Babarrun lehiaketa, 10:00etan (kazolen aurkezpena eta sari banaketa, 14:00etan).  
Mahaien banaketa, 10:30ean.  
Puzgarriak, 11:00etan.  
Bertsolariak: Alain Barañano eta Ander Aldazabal, 13:00etan.  
Gaztedi taldea, 13:30ean.  
Apar jaia, 16:00etan.  
Dj Zornotzarrak, 16:30ean.  
Mus inskripzioa, 17:00etan.  
Altxaporru, 22:00etan.  
*Ogenbarrena auzoan.*

## DOMEKA 22

**DURANGO Saskibaloia**

Autorik Gabeko Munduko Eguna. 3x3 saskibalo txapelketa, Tabira klubagaz elkarlanean.  
*Zumalakarregi kalea, 10:00etatik 14:00etara.*

**DURANGO Jaiak**

Gilda txapelketa, 13:00etan.  
Durangoko Tabira Musika Banda, 13:00etan.  
Trikitilariak, 13:15ean.  
Mus, igel eta dardo txapelketak, 16:30ean.  
Txokolatada, 17:00etan.  
Zumba Solidarioa, Angelman Sindromea elkarteagaz, 17:30ean.  
Trikipoteoa, 20:00etan.  
*Goienkalean.*

**DURANGO Bisita**

'Durango zuri beltzean' bisita gidatua. Izena emateko: 94 603 39 38 / turismo@durango.eus.  
*Turismo Bulegoan, 10:30ean (euskaraz) eta 12:30ean (gaztelaniaz).*

**ELORRIO Antzerkia**

'Geometría del alma' (Teatro Plus).  
*Arriola antzokian, 17:00etan.*

**ZORNOTZA Azoka**

Emakume Sortzaileen Azoka. Besue elkarteak antolatuta.  
*Txiri Txiri plazan, 11:00etatik 14:30era.*

**ZORNOTZA Musika**

Hartza Duo taldea.  
*Boroako San Pedro basilizan, 19:00etan (doako autobusa San Migel kaleko osasun zentrotik, 18:30ean).*

**ZORNOTZA Jaiak**

Merkatu solidarioa (11:00-15:00).  
Ernesto (musika eta dantza kubatarra), 12:00etan.

## ZINEMA

**DURANGO****ZUGAZA ZINEMA**

**Solos en la noche**  
barikua 20: 18:00.  
zapateria 21: 17:00, 19:30.  
domeka 22: 18:15.  
astelehena 23: 18:00.  
martitzena 24: 20:15.  
eguztiena 25: 19:00.

**Solo para mí**  
barikua 20: 18:00, 20:30.  
zapateria 21: 17:00, 21:30.  
domeka 22: 18:00, 20:00.  
astelehena 23: 18:00, 20:15.  
martitzena 24: 18:00, 20:15.

**Puntos suspensivos**  
barikua 20: 20:30.  
zapateria 21: 19:30, 21:30.  
domeka 22: 19:30.  
astelehena 23: 20:15.  
martitzena 24: 18:00.  
eguztiena 25: 19:00.

**Transformers one**  
barikua 20: 18:00, 20:30.  
zapateria 21: 17:00, 19:15, 21:30.  
domeka 22: 17:00, 20:00.  
astelehena 23: 18:00, 20:15.  
martitzena 24: 18:00, 20:15.  
eguztiena 25:19:00.

**ELORRIO****ARRIOLA ANTZOKIA**

**El monje y el rifle**  
zapateria 21: 20:00.  
domeka 22: 20:00.  
astelehena 23: 20:00.

**ZORNOTZA****ZORNOTZA ARETOA**

**Romper el círculo**  
barikua 20: 20:00.  
zapateria 21: 20:00.  
domeka 22: 20:00.  
astelehena 23: 20:15.

**10 vidas**

zapateria 21: 17:00.  
domeka 22: 17:00.

Txistulariak, 12:00etan.  
Trikitilariak, 13:00etan.  
Pintxo euro batean: txorizo sagardotan egosia, 13:30ean.  
Jaien amaiera, 15:00etan.  
*Ogenbarrena auzoan.*

## MARTITZENA 24

**DURANGO Jaiak**

Jubilatuen bazkaria, 14:00etan (izen emateko, Anboto tabernan).  
Txorizo dastatzea trikitilariekin, 19:00etan.  
Jaien amaiera, 20:00etan.  
*Goienkalean.*

## EGUENA 26

**BERRIZ Antzerkia**

'Art-ilusio' (Markeliñe konpainia).  
*Eskolako patioan, 17:00etan.*



# "Hamabost onenetan geratzea itzela litzateke"

**IRONMANA** Gurutze Fradesek Munduko Ironman Txapelketa lehiatuko du domeka goizean, Nizan (Frantzia). Iaz ezin izan zuen parte hartu, azken momentuan gaixotu egin zelako. Sasoi dago eta iazko zapo garratza kendu gura du aurten

**Joseba Derteano IURRETA**

Gurutze Frades (Iurreta, 1981) urteko probarik garrantzitsuenaren atarian dago. Domeka goizean Munduko Ironman Txapelketa lehiatuko du, Nizan (Frantzia). 2016tik hona urtero lortu du sailkatzea. Denbora honetan une gogoangarriak bizi izan ditu, 2023an Utah-n (AEB) lorturiko bederatzigarren postua esaterako, orain arteko bere emaitzarik onena. Memorian gertuen duen esperientziak, oster, gehiago gu garrantzetik gozotik baino. Iaz, azken unean uko egin behar izan zion parte hartzeari, aurreko egunetan gaixotu egin zelako. Arantza hori atera gura du aurten, eta sentsazio onekin lehiatu.

Gogor prestatu duen hitzordua da. Astebete darama tokian bertan entrenatzen, Nizan, baina aurretik ere egonda dago. Uztailean astebete eman zuen han, ibilbideko sekretuak deskubritzen.



Gurutze Frades, entrenamendu saio batean. GURUTZE FRADES

**Ibilbidea**

Probako distantzia honako hau da: 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan, eta 42 korrika. Igeriko tartean, uraren tenperaturak Fradesen jarduna baldintzatu dezake. Ura 23 gra-

duetik behera badago, neoprenoa jantzi beharko dute eta iurretarrari hobeto datorkio hori. "Hortzagaz sufritu egiten dut", azaldu du. Hala ere, susmoa du uraren tenperatura ez dela horrenbeste jaitsiko.

Uretatik irten eta gero, bizikletako 180 kilometroak hasiko dira. Ibilbidea "desnibel handikoa" da lehenengo zatian, eta "oso teknikoa" amaieran. Ibilbide aldapatsua izatea ondo datorrkio, arrazoi bigaitik: ondo egokitzen da bere dohainetara, eta, horrez gainera, errodatore direnek gura baino apalago joan beharko dute. Jaitsiera teknikoa denentzat izango da erronka bat.

Azkenik, korrikako maratoia (42 km) helduko da. "Ibilbide laua da eta zuzengune askokoa. Ondo bazaude, azkar egin daitete", deskribatu du iurretarrak. Ez da sekretua Fradesen indargune nagusia korrikako tartea dela. Atzetik aurrerako bidea egiten du normalean, postuak aurreratuta. Beraz, bizikletan indar apur bat gordetzen asmatzen badu, korrika aldea atera dezake.

**Motibatuta dago**

Domekako hitzorduari begira, "motibatuta eta sasoi onean" dagoela adierazi du. Izan ere, konfiantza ere landu beharreko zerbait izan da azkenaldian. Bere azken lasterketa Gasteizko Ironmana izan zen, uztailean. 2023an irabazi egin zuen. Aurten zortzigarren amaitu du. Oso postu ona da, baina ez zen asebeteta geratu. "Ez nuen nik espero nuen lasterketa egin", esan zuen. Aurretik hori kontuan hartuta, lan fisikoa eta mentala uztartu ditu aurretik zuen erronkari

begira. Oreka hori lortzeko, Sierra Nevada (Granada, Andaluzia) toki aproposa aurkitu du. Urtero joaten da hango errendimendu handiko zentrorra, munduko txapelketari begirako prestakuntza fintzeko. Bost bat aste eman ditu han, eta behar zuena aurkitu du. "Egunetik egunera sasoi puntu hobea lortu dut", adierazi du.

**Helburuak**

Urterik urtera gatzagoa da munduko txapelketan goian ibiltzea, geroago eta maila handiagoko parte hartzaileak daudelako. Horretan, zerikusia du orain hiru urte antolatzaileek harturiko erabakiak. Gizonen eta emakumeen txapelketa banatzea erabaki zuten. Ez zuten gehiago egun berean Konan lehiatuko. Batzuk Konan arituko ziren, eta besteak Nizan, urterik urtera tokia txandakatuz. Banaketak emakumeen parte hartzea eta batez besteko maila handitzea ekarri du. Hori kontuan hartuta, "hamabost onenen artean geratzea itzela litzateke, baina hori lortzea superlasterketa bat egitea litzateke", onartu du triatleta iurretarrak.

**SIERRA NEVADAN ENTRENATUTA, "EGUNETIK EGUNERA SASOI PUNTU HOBEA LORTU DUT"**

## Transiberica ultra, Urbietaren eta Astorkiaren balentria berria

**TRANSIBERICA ULTRACYCLING** Jon Urbietak eta Kepa Astorkiak 2.800 kilometro egin dituzte hamar egunean

**J.D. DURANGALDEA**

Jon Urbietak (Berriz, 1986) eta Kepa Astorkiak (Berriz, 1978) beste balentria bat egin dute bizikletan, orain arteko gogorrena. Iazko ekaineko Basajaun proba —800 km eta 15.000 metroko desnibel positiboa— lekutan utzi dute abuztu amaieran egindako Transiberica Ultracycling-egaz: 2.800 kilometro bederatzita etapatan, 36.000 metroko desnibel positiboa gaindituta.

Italia iparraldeko Bolzano hirian hasi eta Bilbon amaitu zen proba. "Oso proba gogorra",

Urbietaren esanetan. "Egunean 18 bat ordu egiten genituen bizikletan. Ordu asko dira. Batez beste, 290 kilometro egin genituen eguneko. Orain arte egin dugun erronkarik gogorrena izan da, baina amaitu dugu, eta oso pozik gaude", gaineratu du.

Bidean paisaia ederrekin gozatu zuten eta mendi mitikoak igo zituzten (Stelvio, Mont Ventoux...) eta horrek bideko miseriak arintzen lagundu zuen: "Nekea, gosea eta logurea". Etopa bakoitzeko irteera eta helmuga lotzeko ibilbideak parte

hartzaileek eurek erabaki zituzten. Batzuetan, puntu bien arteko ibilbiderik laburrena aukeratu zuten berriztarrek, baina ordainetan "desnibel itzelak" igo behar izan zituzten. Beste batzuetan, gurago izan zuten itzuliguru bat eman, desnibela arintzeko.

Gorputzari asko exijitu zioten: mina "belaunean, gerrian..." eta "medikuarenera bueltatxo bat edo beste" ere bai. Egunik gehienetan kalean lo egin zuten; behin, banketxe bateko kutxazain gelan ere bai.

**"GURE ERRONKARIK GOGORRENA IZAN DA, BAINA AMAITU DUGU ETA OSO POZIK GAUDE"**



Kepa Astorkia eta Jon Urbietak, probako mendate bat igotzen.



# Txapel morearen bila nesken errugbi torneoan

**ERRUGBIA** Durango Neskak Rugby Txapelketak bosgarren aldia egingo du zapatuan. Sei talde lehiatuko dira Arripauseta zelaian, tartean Durango Rugby Taldea. Talde guztiak maila handikoak dira, Sarako Izarrak eta Universitario Bilbao, besteak beste

**Joseba Derteano** DURANGO

Zapatuan sei talde lehiatuko dira Arripausetan txapel morearen bila. Sari horixe banatzen du aurten bosgarren aldia egiten duen Durango Neskak Rugby Txapelketak. Talde bat etxekoa da, Durango Rugby Taldea. Beste lau kanpotik datoz: Universitario Bilbao Rugby, Santanderreko Grupo Gof Rugby Unión Norte, Gasteizko Gaztedi Rugby Taldea eta Sarako Izarrak. Seigarren taldea, Neskarians izenekoa, talde guztietako jokalariek osatuko dute. "Errugbiaren balioak bizirik mantentzea da talde honen helburua", azaldu zuen DRTko Aratz Gallastegik ekimeneko aurkezpenean.

Denek denen aurka jokatuko dute, liga formatuan, 14:30ean hasita. Hamabost minutuko partidu laburrak izango dira. Finala 19:00-19:30 artean hasiko da. Amaieran, hirugarren denboraren bueltan batuko dira parte



Ekimenaren aurkezpeneko irudia.

hartzailleak. "Liga hasi aurretik horrelako txapelketa bat egitea aberasgarria da, gazteek errugbia ikusi dezaten eta taldera batzera animatu daitezten", adierazi du Ane Martinezek, DRTko emakumeen taldeko jokalaririk. Ekimenak La Salve garagardoa-

ren eta Durangoko Udalaren laguntza du. "Durangoko Udalarentzat lehentasuneko da kirola sustatzea bere modalitate guztietan, eta baita emakumeen kirola bultzatzea ere", adierazi du Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak.



Xake ligako jardunaldi bat, Landako Gunean.

## Larrasoloeta, 40 urte ospatuz

**Joseba Derteano** DURANGO

40. urteurrenko ospakizunen barruan, Larrasoloeta Xake Taldeak Adiskidetasun Torneoa antolatu du zapaturako. Landako Gunean izango da, 15:30ean.

Euskal Herriko, Kataluniako, Errioxako, Kantabriako eta Asturiasko taldeak ere etorriko dira. Xakea ospakizunekin uztartuko dute: musika, kontzertuak, jan-edana...

## Bizkaiko Zaku Eramate Txapelketa lehian, Iurretan

Domeka honetan, 12:30ean hasita, Bizkaiko Zaku Eramate Txapelketa lehiatuko dute Iurretako Kepa Arroitauregi pilotalekuan. Sarrera doakoa da. Emakumeetan bost partaide izango dira: Nerea Sanz, Esti Meseguer, Amaia Mendinueta, Iraide Gezuraga eta Oihane Gonzalez. Gizonetan, Beñat Amade, Jon Tobarra, Igotz Ardeo eta

Bingen Erleagaren artean egongo da txapela.

Horrez gainera, Bizkaiko Ope-nak beste lau lehiakide batuko ditu; Laura Perez, Eiharne Pardo, Aida Ugalde eta Andrea Valenciano. Azkenik, Iurretako HEKI klubak taldeko gazteen arteko txapelketa antolatu du; zazpi parte hartzaile egongo dira.

Txapelketa Iurretako HEKI klubak eta Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatu dute, erakundeen babesagaz.

## JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

## Denboraldi hasiera eta erronkak

Udako oporretara joan aurretik, 2023-2024 denboraldiaren errepasso txiki bat egin nuen eta aurten, nire ikuspuntutik, kontuan hartzekoak zirenak adierazi nituen. Talde asko ditugu eskualdean, eta bakoitzak bere helburu eta erronkak ditu denboraldi berriari begira. Eta, egia esanda, Durangon, hasi dugu ibilbidea. Oinarri sendo bat behar dugu.

Hasteko, talde nagusiak, gogo eta ilusio eraberrituekin, topera ari dira lanean euren helburuak betetzeko. Tabirako Baqueko gizonak FEBeko 3. Mailan (aurreko EBA maila) arituko dira. Helburua, mailari ondo eustea izango da, arazo larririk eta estutasunik pasatu gabe.

Tabirako Baqueko emakumeek, aurreko denboraldi gogorra ahaztu gabe eta oinarria sendo mantenduz, aurten, gora egiteko helburua izan behar dute. Behera barik gorantza begira jartzeko urtea da, gogotik lana eginez eta denen laguntzarekin.

Era berean, ezinbestekoak ditugu ume eta gazteen taldeak, eta horiek ezingo ziren aurrera atera entrenatzailerik gabe. Euren lana ezinbestekoa da umeen trebakuntzan eta saskibaloirako zaletasuna sustatzeko orduan. Aurten, adibidez, kadete mailan, nesken sei talde gehiago daude, eta mutiletan bat gehiago. Iaz egindako lanaren ondorioa da. Epe labur eta ertainera begira, oinarri hauek babestea, sendotzea eta lantzea

**"ERRONKAK EZ ZIREN  
POSIBLE IZANGO  
ENTRENATZAILERIK  
UMEEKIN EGINDAKO LAN  
SENDORIK GABE"**

izango dira denon artean heldu beharreko erronka nagusiak. Izan ere, oinarri sendoak izateak aurrera itxaropentsu begiratzeko aukera ematen du.

Beraz, hasieran aipatu ditugun helburuan, talde nagusien erronkak ez ziren errealitate izango aurretik urte askoan entrenatzaileek umeekin eta harrobian egindako lan sendorik gabe. Entrenatzailerik gabe, miraririk ez zen gertatuko. Eta, aurrera begira, proiektua bertan behera geratuko da, entrenatzailerik ez bada gehitzen. Tabirako, jokalarien harrobi den heinean, entrenatzaileena era bada. Zerbaki borobiletan 50 saskibaloitako talde daude Durangon eta guztiak bere entrenatzaile(k) dau(z)kate. Horixe da oinarri nagusia. Beraingana hurbildu, eta elkarren artean formakuntza eta talde lan egokia egiteko oinarriak eta proiektua bideratu beharko ziren.

Horiek dira, nire ustez, aurten landu behar ditugun erronka nagusiak.






Aitor Ajuria helmugan sartzen. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Itsasne Urkiaga. M.Z.



Iñigo Pradera. M.Z.



Mikel Arroitaonandia. M.Z.

# Aitor Ajuria eta June Villarroel garaile Sorghinen Lasterketan

Beteranoetan, Asser Alonso (2:21:00) durangarra eta Ainhoa Eiguren (3:11:29) gipuzkoarra izan ziren bizkorrenak joan zen zapatuan Atxondon lehiatutako lasterketan

## Aritz Maldonado ATXONDO

Aitor Ajuria Sorghinen Lasterketa irabazteko faboritoetarikoa bat zen, eta hala izan da azkenean. 2.00.40ko denboragaz, lehenengoa izan da helmuga zeharkatzen. Bere atzetik, Ander Gerrikatebarria zornotzarra (2.04.36) eta Paul Ormaetxea (2.06.11) sailkatu ziren. Emakumezkoetan, June Villarroel elorriarrak 2.35.21eko denbora behar izan zuen helmugara ailegatzeko;

haren ostean heldu ziren Itsasne Urkiaga zornotzarra sailkatu zen bigarren (2.43.41), eta Aina Arkarazo abadiñarra hirugarren (2.53.03).

## LEHEN ATXONDARRAK OIHAN ARZUA ETA EIDER BERRIOATEGORTUA IZAN ZIREN

Beteranoetan, Asser Alonso durangarra (2.21.00) eta Ainhoa Eiguren gipuzkoarra (3.11.29) izan ziren bizkorrenak. Helmuga zeharkatu duten lehenengo atxondarrak Oihan Arzua (2.49.18) eta Eider Berrioategortua (3.13.14) izan dira. Sorghinen Lasterketa Urkiola Trail Kopa berriko lehenengo proba izan da. Sorghinen Lasterketak 17 urte egin ditu 2024an. ANBOTOk streaming bidez eskaini zuen proba.



Eider Berrioategortua, Artolan gora. LUCIA MERUELO



Egoitz Gil, Artolan gora. LUCIA MERUELO





Ainara Arkarazo. M.Z.



Paul Ormaetxea, Artolan gora. LUCIA MERUELO



Nora Narbaiza. LUCIA MERUELO



June Villarroel, helmugan. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Zutoia Odriozola. M.Z.



Roberto Pérez. LUCIA MERUELO



Oihan Arroyo. LUCIA MERUELO



Ander Gerrikaetxebarria. M.Z.



## GUARDIAKO BOTIKAK

**IRAILAK 20****09:00-09:00**

De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**IRAILAK 21****09:00-09:00**

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**IRAILAK 22****09:00-09:00**

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**IRAILAK 23****09:00-09:00**

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**IRAILAK 24****09:00-09:00**

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**IRAILAK 25****09:00-09:00**

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**IRAILAK 26****09:00-09:00**

Irigoi, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

**09:00-22:00**

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## ZORION AGURRAK



**GOZATU GOZOTEGIA**  
 Ermodo, 11 DURANGO  
 Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00  
 gozatudurango@gmail.com  
 f Gozatu Gozotegia  
 gozatugozotegia



## IURRETA

**Jon Rementeria Garcia**

Irailaren 22an, 9 urte. Gure futbolistak 11 urte egiten dauz. Oso egun ederra pasau familia eta lagun artean. Asko maite zaitugu! Jarraitu zaren modukoa izaten. Mosuek Naiaren eta Arriandikuen partez.



## ABADIÑO

**Aitziber Basauri**

Zorixonak Aitz! Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta istorio asko bizi izan ditugu elkarrekin. Urte biribila bete duzu eta topa egin dezagun, beti ondoan eta barrez jarrai dezagun! Musu handi bat bihotz-bihotzez, asko maite zaituen bikote honen partetik.

## Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/](http://Anboto.org/) zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurrak@anboto.org](mailto:zorionagurrak@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etor zaitetz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.


## EGURALDIAREN IRAGARPENA

## EUSKAL HERRIA



## DURANGALDEA

## Zapata, 21



## Domeka, 22



# GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

## FUE EN ABRIL

ANTZERKIA

Irailak 20, barikua

19:00etan,  
Ibarretxe Kultur Etxean

Sarrera 5€

Gonbidapenak Kultur Etxean jaso daitezke



## INMOBILIARIAK



**URRETA** ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **256.000 €-tik aurrera**

**AUKERA**

**Durango:** Sukalde handia, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 172.000 €**

**Antrosio Meabe:** Azkeneko pisua. 2 logela eta 2 komun. Terraza handia. Ganbara. Hegoaldea. **C.E.E=E 250.000 €**

**Abadiño:** Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Ikuspegi ederrak mendietara. **C.E.E=E 198.000 €**

**lurreta:** 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 170.000 €**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Ibaizabal:** Logela bakarrekotik apartamentua, komuna, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 210.000€**

**Durango:** Apartamentu erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan. 2 kotxerentzako garajea eta ganbara handia. **C.E.E=D 239.000€**

**Durango:** 120 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 komun eta sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta garaje zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 260.000 € / negoziagarria**

**Errotarituena:** Erdi berria. 3 logela horma-armairuekin eta 2 komun. Terraza. garajea eta trastelekua. **C.E.E=D 359.000 €**

**Frantsizko Ibarra:** 105 m<sup>2</sup>. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia. **C.E.E=E 310.000 €**

**lurreta:** 114 m<sup>2</sup>. 4 logela eta komuna. 2 terraza. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 246.000 €**

**F.J. de Zumarraga:** 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 195.000 €**

**Berriz:** Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 330.000 €**

**Astxikil:** 147 m<sup>2</sup>. 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

**Komentu kalea:** 70 m<sup>2</sup>. 2 egongela handiak, komuna, sukalde despsentarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=E F 187.000 €**

**Andra Mari:** 85 m<sup>2</sup>. 2 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

**Berriz:** Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=F 160.000 €**

**GARAJEAK SALGAI**

**ERDIALDEAN:** Garajea. **13.000 €**

**J.M.ALTUNA:** Garajea. **15.000 €**

**ALLUITZ:** Garaje itxia. **23.000 €**

**ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO**

**Askatasun etorbidea:** 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

**Pinondo:** Logela biko atiko ederra. Sukalde eta komuna. 50 m<sup>2</sup>-ko lokalarekin batera salgai. Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukalde, egongela, eta komuna. Trastelekua.

**Tabira:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Oso argitsua.

**BERRIZ**

**Berriz:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDU**

**Atxondo:** 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**LURSAILAK SALGAI**

**Tabira:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**lurreta:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

**BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**

**Abadiño:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

**Berriz:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**Berriz:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**Atxondo:** Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

**Mañaria:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**Mendata:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO**

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

**GARAJE ITXIAK SALGAI**

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

**LOKALAK ALOKAIKIRUAN**

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

**LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**

**Matiena:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



**DURANGO San Fausto:** 86 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde, 2 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Herriko sarrera/irteera batetik gertu. Egoera onean. Trastelekua.



**DURANGO Antrosio Meabe:** 117 m<sup>2</sup> erabilgarri. Halla, egongela, sukalde, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea). Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.



**DURANGO Askatasun Etorbidea:** 66,40 m<sup>2</sup> + 250 m<sup>2</sup>-ko terraza. Halla, egongela, sukalde, eskegitokia, 2 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea). Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. EGOERA ONEAN. Garajea.



**ABADINO Alfredo Baeschlin:** 96 m<sup>2</sup>. Halla, egongela, sukalde, 4 logela, despentsa eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Ikuspegiak. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. Berriztatze, banaketa berria egiteko aukerarekin. Apartalekua atariaren ondoan eta 14m<sup>2</sup>-ko lokala. Aisialdirako espazio komunitarioa. ITE-a pasatutakoa. Etxebizitzak ez du derramarik zorretan.



**MATIENA Txinurrisol:** 73 m<sup>2</sup>. Egongela-sukalde, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-hegoaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuguneetatik gertu. 6m<sup>2</sup>-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzak behar.

**BERRIAK URRETA**

**Bixente Kabanaga:** Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

**DURANGO**

**Antrosio Meabe:** 2 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta igogailua. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000 € / E.E.Z= Bidean**

**Askatasun Etorbidea:** 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**Askatasun Etorbidea:** 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000 / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**Barrenkalea:** 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**Barrenkalea:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**Errotarituena:** 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000 € / E.E.Z=D**

**Juan de Olazarán:** 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**Komentu kalea:** 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**Komentu kalea:** 2 logela, sukalde-egongela eta 2 Komun. Balkoia, ganbara, igogailua eta garajea. **LEHEN 379.000 / ORAIN 369.000 E.E.Z=B**

**Santikurutz Kalea:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

**ABADINO**

**Konpontzeko eraikina.** Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

**BERRIZ**

**Murgoitio auzoa:** Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

**GARAJE**

**Momoitio auzoa:** Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

**URRITZA**

**Elizalde auzoa:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

**UIXANDIO**

**Elixoste:** 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 145.000 € ORAIN 130.000 € / E.E.Z=F**

**Zelaieta auzoa:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000 / ORAIN 280.000 E.E.Z=G**

**GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO**

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.





## Zutabe parte-hartzaile bat

a) Durangoko Udalak beste parte-hartze prozesu bat jarri du martxan kale bati izena emateko. Institutuko ikasle batzuek 'Jolasordu' kalea proposatu dute algarra artean, eta 300 gazteren botoekin hori izango da kalearen izena. Garrantzitsuena herriari entzutea da, esan du agintari batek. Osasun-zentroan medikurik ez dagoela salatzen duten pankarta batzuk kendu dituzte, "beste garai batzuk" gogorarazten dituztelako.

b) Europar Batasunak esan du gerra "datorrela", eta herrialdeek soldaduska ezarri dute 18 urteko guztientzat. Ekialdeko frontera lehen gazteak bidali dituzte, baina operazio laburra izango ei da. Gu mugikorrean bozkatzeko ari gara ea Durangaldea zeharkatuko duen bidegorria berdea ala gorria izango den. Batzuek diote, izenari jarraituz, gorria beharko lukeela; beste batzuek, ekologikoa denez, berdea. Ez da erabaki erraza.

c) Zure lagun batek bere burua aurkeztu du plaza batek bere izena eduki dezan. Bozkatu eta zabaldu mezua ;), esan dizu. Beste batek proposatu du  $\infty$  izena ematea, matematikarien turismoa sustatzeko. Erretiroa 70 urtera atzeratu dute, ekonomian adituek horrela izan behar duela diote-eta. Dakitenei jaramon egin beharko zaie.

Aurreko zein aukera uste duzu dela posibleena? Bozka ezazu. Zure iritzia garrantzitsua da.

## AKUILUA



# "Gaztandegia guztiz deskarbonizatzea lortu dugu"

**FELIX AJURIA OTXANDIANO** IDIAZABAL JATORRIZKO IZENDAPENAREN PRESIDENTEA  
Felix Ajuriak biologia ikasketak egin zituen arren, artzain gaztagilea da azken 24 urtean. Martin anaiagaz eta Aitor semeagaz darama Kerixara gaztandegia

**Aitziber Basauri** OTXANDIO  
Kerixaran 400 bat ardi dituzte, eta 9.000-10.000 kilo gazta merkaturatzen dute urtean, Idiazabal gazta. Gaztandegian batu gara Felix Ajuriagaz, jaiotzen base-erititik gertu, Limitaduan.

**Artzain tradizioko familia da zuena. Horrek jakinduria eman dizue?**

Jakinduria baino gehiago, formakuntza izan da gurea. Martin anaiak hartu zuen lekukoa lehenengo. Nik biologia ikasketak egin nituen, eta irakaskuntzan ibili eta gero, EHNE sindikatuan

lan egin nuen, zazpi urtez. Artzainaren mundua erakargarria izatea lotu dela esango nuke, belaunaldi erreleboa egon da eta. Artzain Gazta elkartean 120 bat kide gara, eta kideon batez beste adina 40 urtetik beherakoa da. Horrek ez du esan gura erreleboa bermatuta dagoenik, lanean jarraitu behar da, baina lehen sektorean hau ez da ohikoa. Idiazabal oso tresna ona izan da irudi positibo bat emateko, produktu ona eta ustiategi errentagarriak sortzeko.

**Ingurumenagaz jasangarria den proiektua da zuena.**

Orain 25 urte erabaki genuen Amazonia suntsitzen ez jarraitzea. Ba, soja erabiltzeari utzi genion eta Arabako baserriarrek ekoizturiko ilarrekin eta kolzagaz gu geu hasi ginen pentsua egiten. Energetikoki autosufizienteak izatea ere lortu dugu. **Horretan aritu zarete azken urteetan.**

Bai. Gaztandegia guztiz deskarbonizatzea lortu dugu aurten, Latxa Energy eta Gazta Energy

kooperazio proiektuen laguntzagaz. Gaztandegiaren teiltatua —1.000 metro karratu ditu— eguzki plakak ipini genituen orain bost-sei urte. Bertan produzitutako energiaren soberakinagaz 1.000 litroko ur depositoa berotzen dugu, gero gazta egiteko. 2024ko produkzio osoa horrela egin dugu.

**Ekonomia zirkularra bultzatzen duzue.**

Ez dugu ezer asmatu. Horrela egin da beti baserrietan. Ez dugu hondakinik botatzen, plastikoa salbu. Horixe da orain erronka.

**Ardi moztaila ere bazara.**

Bai, ardi moztaila profesional batek erakutsi zidan teknika, eta gustura nabil. Lasai hartzen dut, paliza handirik hartu barik. Artilea konposta egiteko erabiltzen dugu.

**Zer du Idiazabal gaztak berezi?**

Amama Anizetak egiten zuen eran jakin dugu gazta egiten, berak erakutsi lez. Lehendik zegoen produktua, ezaugarri eta egiteko modu zehatzak dituena, hobetzen joan gara teknologiari eskerrak. Transmisio hori emakumei eskerrak mantendu da.

**Artzain Gazta elkartearen bitartez eta Bizkaiko komertzio txikietan saltzen duzue. Baina, baduzue beste salmenta bide bat.**

Bai, ekoizpenaren %15-20 hartzen du eta oso pozgarria da guretzat. Zenbait ikastetxetan gure gazta saltzen dute, ikasbidaiarako dirua batzeko: Durangoko Kurutzian, Iurretako Juan Orobiogitian, Elorrioko eta Abetxukoko institutuetan, Bilboko Urretxindorra ikastolan eta Eibarko zentro batean. Gabon inguruan, Idiazabal gaztaren sare komertzialik handiena dugu, 300 bat familiak osaturikoa.

DURANGO

**SAN ROKE BARRIA**

**Bilatzen zenuen aukera.**

Etxebizitza modernoak kokapen bikainean.

2 logela:

**249.000€** -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

3 logela:

**314.000€** -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

Zure hitzarmena eskatu:

**sukia.com**

edo deitu iezaiguzu:

**946 462 041**

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa